



HAL
open science

-le/-tzaile inflexiozko atzizkiaz

Bernard Beñat, B. Oyharçabal, Beatriz Fernandez, Josu Landa
(ametzagaiña), Ibon I. Sarasola

► **To cite this version:**

Bernard Beñat, B. Oyharçabal, Beatriz Fernandez, Josu Landa (ametzagaiña), Ibon I. Sarasola. -
le/-tzaile inflexiozko atzizkiaz. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 2010,
XLIV-2, pp.457-510. artxibo-00799882

HAL Id: artxibo-00799882

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00799882>

Submitted on 12 Mar 2013

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

-LE/-TZAILE INFLEXIOZKO ATZIZKIAZ

Beatriz Fernández (UPV/EHU), Beñat Oihartzabal (IKER),
Josu Landa (Ametzagaiña) eta Ibon Sarasola (UPV/EHU)

Laburpena

Lan honetan -le/-tzaile inflexiozko atzizkia aztertuko dugu, eratorpenezko -le/-tzaile atzizkiarekin konparatuz. -le/-tzaile eratorpenezko atzizkiaz sortutako hitzek barne argumentua jaso dezakete gehienez ere; -le/-tzaile inflexiozko atzizkiak, aldiz, askotariko osagaiak bildu ditzakete: datibo sintagmak, postposizio sintagmak, adberbio sintagmak eta baita mendeko perpausak ere. Honen ondorioz, badirudi inflexiozko atzizkiaren osagarria aS (aditz txikiaren sintagma) dela edo are goragoko beste islapen bat (behabada Inflexio sintagma). Partizipio predikatuko egituretan bezalaxe, litekeena da -le/-tzaile egituretan ere operatzaile isilen bitartez sortzea predikazioa. Azterbide honek, halaber, erlatibo generikoen eta gure egituraren arteko antzekotasunak azaltzen ditu.

Gako hitzak: *-le/-tzaile inflexiozko atzizkia, -le/-tzaile eratorpenezko atzizkia, egitura jokatugabeak, mikro-aldakortasun sintaktikoa.*

Abstract

This paper analyzes the nature of the Basque inflectional suffix -le/-tzaile, comparing it with the derivational suffix of the same form. As we will see, the inflectional suffix can select for a wide range of constituents, such as dative phrases, post positional phrases, adverbs and even finite clauses. Thus, the complement of the inflectional suffix -le/-tzaile can be claimed to be a vP or even a higher phrase such as I(nflection)P. As happens in participial predication in Basque (Ortiz de Urbina & Uribeetxebarria 1991), predication is mediated by empty operators in inflectional -le/-tzaile structures, giving rise to similarities with relative clauses.

Key words: *inflectional suffix -le/-tzaile, derivational suffix -le/-tzaile, nonfinite structures, syntactic microvariation.*

0. Atarikoak*

Euskararen hizkera batzuetan, *-le/-tzaile* eratorpenezko atzizki ezagunaren orde, itxura bereko *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia dago. *-le/-tzaile* eratorpenezko atzizkia

* Lan hau prestatu bitartean, asko izan dira gurekin *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkiaren inguruan eztabaidatu eta lanean nola edo hala lagundu diguten hizkuntzalariak: Pablo Albizu, Maider Bedaxagar,

dugun kasuetan, eratorritako hitz berriak gehienez ere, barne argumentua jaso dezake (hiztegian edo sintaxian), baina ezin dezake ez datibo sintagmarik, ez postposizio sintagmarik, ez bestelako osagai sintaktikorik erakutsi. Aldiz, *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkiak ez du itxuraz mugarik honi dagokionez: datibo sintagmak bildu ditzake, askotariko postposizio sintagmak ere bai, adberbio sintagmak eta baita sintaktikoki konplexuak diren bestelako osagaiak ere (mendeko perpausak, esate batera). Lan honetan, *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia deskribatu eta analisi posible baterako lehen urratsak egingo ditugu.

1. *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia eta datiboak

Hasi gaitezen, bada, *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkiaren azterketarekin. Lehenik eta behin, eratorpeneko atzizkiaren ezaugarriak laburbilduko ditugu (1.1); bigarrenik (1.2), inflexiozko atzizkia erakutsiko dugu, datiboan agerpenarekin batera; hirugarrenik, datibo araziak izango ditugu mintzagai (1.3) eta *-zale* hizkia, *-le/-tzaile* inflexiozko atzizki beraren aldaera dialektala dela erakutsiko dugu azken atalean (1.4).

1.1. *-le/-tzaile* eratorpeneko atzizkia morfologia lanetan

Gràcia *et al.* (2000) lanean, deskribapen zehatz eta osoa dugu eratorpeneko *-le/-tzaile* euskal atzizkiak. Bi atzizki gabe, atzizki bakarra dela irizten diote egileok. Egileek gure lanari dagozkion alderdiez diotenez, *-le/-tzaile* atzizkiak eratorritako hitzak adjektiboak dira, nahiz eta tradiziozko gramatikan izentzat ere hartu izan diren eta sarri askotan izenak ere badiren.

Atzizki honen oinarria aditza da, eta beraz, predikatu sortu berriek argumentu egitura dute. Hala, oinarriko aditzaren barne argumentua heredatu egiten dute adjektibo/izen eratorriek, eta argumentu hori bi modutara burutzen dute, ondoko adibideetan ikus daitekeenez:

- (1) a. Diru-emailea
- b. Diruaren emailea

(a) adibidean, gai argumentuak (*diru*) ez du determinatzailearik, balio generikoa du eta eratorritako hitza (*emaile*) buru duen hitz elkartu berri baten (*diru-emaile*) osagaia dela diote morfologialariek; (b) adibidean, berriz, gai argumentua eratorritako izenaren modifikatzailea da (*diruaren*), genitibo markak erakusten duenez, eta ez da generikoa.¹

Bestalde, *eman* aditza da *emaileren* oinarrian dagoena, alegia, aditz iragankor datiboduna, eta hortaz, egile, helburu eta gai argumentuak dituena. Bada, Gràcia *et al.*

Arantzazu Elordieta, Ricardo Etxepare, Gabriel Fraile, Patxi Goenaga, Richard S. Kayne, Ane Loidi, Jon Ortiz de Urbina, Ainhoa Otamendi eta Igone Zabala. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu horregatik. Lanean egon litekeen edozein errakuntzaren erantzukizuna, jakina, gurea baino ez da. Lan hau ondoko instituzioen eta ikerketa proiektuen babesean egin ahal izan dugu: Ministerio de Ciencia e Innovaciónen FFI2008-00240/FILO; Agence Nationale de la Recherche ANR-07-CORP-033, eta Eusko Jaurlaritzaren HM-2009-1-25 eta IT4-14-10.

¹ Generikoa ez dela Gràcia *et al.* (2000) morfologialariek diote. Gure ustez, generikoa ere izan daiteke.

(2000: 497) diotenez, hiru argumentuko aditza oinarri duten hitz eratorrietan, datibo argumentua oztopatu egiten da eratorpenean eta ezin daiteke sintaktikoki gauzatu. Horregatik, ez-gramatikala da idazle hauen ondoko adibidea:

(2) *Elizari diru-emaile

Azkenik, oinarriko *eman* aditzak kanpo argumentu bat ere badu eta bere theta-rola, hots, egilea xurgatu egiten du atzizkiak. Ondorioz, argumentu gune hori ahitu egiten da eta egilea ez da syntaxian gauzatzen. Nolanahi ere, eratorritako hitza adjektiboa denean, orduan, atzizkiak xurgatutako argumentu hori sintaktikoki zertu daiteke, eta kasu horretan, adjektiboak laguntzen duen izena da predikazioaren subjektua.

(3) Gizon diru-emaile

Halaxe azaltzen digute, gure aldetik oso laburbildurik, Gràcia *et al.* (2000: 23) morfologialariek *-lei-tzaile* atzizkiaren bidezko eratorpenean gertatzen dena.

1.2. *-lei-tzaile* inflexiozko atzizkia eta morfologiaren mugak: datiboen agerpena

Jo dezagun orain itxuraz eratorpen hizki huts bat ez den *-lei-tzaile* atzizkira.

(4) Zure borondatea da amudioz bethea, / eta *gizonei ontasun komunikatzailea* (EZ Man II, 15)²

Balia gaitezen goian eman dugun azalpenaz adibide hau ere aztertzeko: *-lei-tzaile* atzizkia *komunikatu* aditzaren oinarriari gaineratu zaio *komunikatzaile* adjektibo/izen eratorria sortuz. Oinarriko aditza iragankor datiboduna izanik, barne argumentuetatik bat, hots, gaia heredatzen du hitz sortu berriak. Horregatik, hain zuzen, ageri da *ontasun komunikatzaile* segida, gaia (*ontasun*), oinarriko aditzetik heredatu eta syntaxian erakuts dezakeelako. Gai horrek ez du determinatzailerik eta *komunikatzaile* buru duen hitz elkartu berri bat (*ontasun komunikatzaile*) osatu duela pentsa liteke, morfologialarien iritziari jarraituz beti ere.

Honainokoa, arrunta da adibideak erakusten duena, eta itxuraz, morfologialarien azalpenari ondo lotzen zaio. Alabaina, sintagmaren egitura bereko *gizonei* helburu argumentuari begiratzea besterik ez dago, adibidea berezi bilakatzeko. Goian genioenez, datibo argumentua oztopatu egiten da halako hitzen eratorpenean eta ezin daiteke sintaktikoki gauzatu —horretatik, (2) adibidearen ez-gramatikaltasuna—. Bada, morfologialariek ez-gramatikaltzat jotzen duten (2) adibidea bezalakoxea da, hain zuzen, guk klasikoetan aurkitutako (4) *gizonei ontasun komunikatzaile* egitura. Horrelako egiturak, oker ez bagaude behintzat, ez-gramatikalak dira Hegoaldeko idazleengan, baina han eta hemen aurki daitezke euren erakusgarriak Iparraldekoengan. Oso litekeena da, beraz, euskalki soslai izatea egitura honek, eta gaur egun bereziki Iparraldeko hizkeretara mugatzea. Dena den, gure corpusean Beriainen adibide batzuk ageri dira, eta horrek ekialdeko hizkeretara begira jartzen gaitu. Beharbada, ekialdeko eus-

² Adibideen aipamen bibliografikoa ematerakoan, *OEHN* erabilitako irizpideei eta laburdurei jarraitu diegu. *OEHN* ez diren aipamenetarako, ikus lanaren amaieran *Corpuseko aipamen bibliografikoak* izenburuko atala.

kalkien ezaugarria izan zitekeen xvii. mendean, ondoren, ekialdeko hegoaldean nahikoa goiz desagertu bazen ere. Ezaugarriak iraun duen hizkeretan, klasikoetan ez ezik, mende honetan ere jaso daitezke bere testigantzak. Gainerakoan, egitura erakusten duten idazleengan ere, maiztasun txikikoa dirudi, ez erabilera orokortua.

Beste adibide bat ematearren, *emaille* hitza bera dugu ondokoan:

- (5) Oi fenizienarrak, *populu guziei haiñ laguntza emailleak*, bizia ardiets zozuete bi gizonei zoiñek zuen ontasunetik igurikitzen baitute (Dv *Tele-make* 107)

Ikusten denez, azken adibidea ere goiko (4) adibidearen kidekoa da: aditzak *-le* hizkia du, osagarria ere (*laguntza*) ageri da, eta osagarriaz gain, *populu guziei* helburu argumentua ere zertzen da sintaktikoki perpausean.

Gai argumentua genitiboaz markatzen duten adibideak ere badira, ezusteko datiboarekin batera:

- (6) Eta ziraden Maria Magdalena eta Ioana eta Maria Iakesen ama, eta berze hekin ziradenak, *gauza hauen Apostoluei erraileak* (Lç Lc 24, 10)

Adibide klasiko hauetan guztietan, beraz, oinarriko aditzak (*komunikatu*, *eman*, *erran*) dituen barne argumentu biak jasotzen dira egituran eta ez gaia bakarrik. Ez dakigu morfologialariek esango ote luketen datibo argumentua itxuraz heredatu egin duela eratorritako hitzak, eratorpenean zehar oztopatu beharrean.³ Nolanahi ere, sintaxilarien ikuspuntutik, hitz sortu berri huts baten muga morfologikoak gainditu eta ezinbestean sintaxira lerratzen gaituen fenomeno bat dago bertan, zeren sintaktikoki segida konplexuak baitira, edo halakoxeak iruditzen zaizkigu guri behintzat, *-le/-tzaile* atzizkiak hemen jasotzen dituenak, eta ez morfologikoki nola edo hala heredatutako argumentu soilak. Aurrerantzean, *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia deituko diogu honi, ohiko eratorpen atzizkitik bereiztearren.

- (7) a. Gerla denboran, *Alemaneri ihardokitzaile* bezala arrastatua izana zen eta Auschwitz-eko herio-kanpo deitoragarri hartarat eremana (Herr 2006-05-11, 3)
- b. *Irabazleeri xapelaren emaille*: Mixel Xalbador. (Herr 2009-06-04, 3)
- c. Basurdiaren ondetik, *errekolteri desmasia haundiienen egilia*: azkona (GaztAlm 1934, 50)
- d. Dio apezak erran duela peredikian badirela bi bandera, bat satanena, errepublikanoen aldeko botz emailena, bertzea Jesusena, bozkazaile xurriena; *justiziari apez salatzaile* diren girixitinoek bekatu egiten dutela; ez direla apezpikuari buruz baizik gaten ahal; ez duela axolarik, ez salatzez, ez inkestez; paga kentzen badakote, ohointza eginen dutela bigarren aldikotz; ez duela horren beharrik bizitzeko, futitzen dela. (*Le Réveil Basque* 1889-11-24 in XArb Xuri 101)
- e. Oi lore haidur beldurgabea! *Neguari biak-hordago egilea!* Hi hiz eta gure biziaren miraila (Etxam Urtzo 195)

³ Igone Zabalak adierazi digunez, bai, datibo argumentua heredatu duela esan liteke, baina azaldu beharko litzateke orduan nola jasotzen duen datibo kasua hala markatutako argumentuak.

1.3. *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia arazleari gaineraturik eta datibo araziak

Deskribapena zehaztuz joateko, ikus ditzagun orain *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia arazleari gaineratzen dioten zenbait adibide. Aparteko atal bat eskaini diegu arazleaz osatutako adibideoi, bereziki egitura hauetan agertzen den datiboaren nolakotasuna zein den ikustearren.

- (8) a. Pharkatzen dit etsaier, *eni sofri-erazler* (Etch 146)
 b. Iainko *iborziriari oihu eragillea*, / othoi urrikal bekizu ene auhen tristea (EZ *Man* II 111)
 c. O Iongoiko *haizeari bide eragillea*, arren tormentari ather diozozu kolpea (EZ *Man* II 147)
 d. Ai gorputz traidore, *horrenbertze Jaunari damu*, eta *hanbat kalte nerorriri erakharle eta eragile* izatu haizena; herorrek egina, herorrek paga dezakala (DV *LEd* 84)⁴

Adibide hauetan, edo *arazi* bera dugu (*sofri-erazle*) edo *-ra-* arazlearen erroa, oinarriko aditz erroari gaineraturik arazle sintetikoan (*egin* > *eragin*, *ekarri* > *erakarri*). Bestalde, datibo argumentuetatik batzuk arazi garbi samarrak dira (*eni sofri-erazler segidan*, *eni* adibidez, edo *iborziriari oihu eragillea* segidan, *iborziriari*); beste batzuek, berriz, helburu dirudite (*nerorriri*, esaterako, *nerorriri erakharle eta eragile* segidan). Hortaz, ez dirudi helburu soilak direnik egitura hauetan ager daitezkeen datiboak. Ikus daitekeenez, araziak ere ageri dira bertan.

Nabardurak nabardura, goian morfologialarien eskutik eman dugun azalbide bera eman genezake adibide hauez ere. Morfologia hutsaren ikuspuntutik esan genezake barne argumentuaren gai theta-rola heredatzen dutela hitz eratorri berriek (*eragille*, *erakarle*) eta hitz elkartu moduko segidak sortzen dituztela ondoren (*oihu eragille*, *bide eragille*, *kalte erakharle*...). Alabaina, morfologia hutsak ezin lezake datibo argumentuaren agerpena azaldu (*iborziriari oihu eragille*, *haizeari bide eragille*...), esan nahi ez balu, behintzat, datibo argumentu hori ere gaia bezalaxe heredatu egin dela eratorpenean zehar, eta horrek are zailago dirudi arazi baten kasuan, helburu batenean baino. Berriro ere, morfologiak ezartzen dituen murriztapenetatik aske dagoen hizkia dirudi *-le/-tzailek*: ez eratorpenezko atzizki arrunt samarra, ez bada inflexiozko atzizki bat.

Inflexiozko atzizkia delako hipotesia indartzen du adibide hauen konplexutasun sintaktikoak. Ikusi besterik ez dago azken (d) adibidea horretaz jabetzeko. Konplexutasun horren erakusgarrietatik batzuk baino ez dira datibo sintagma bera, gaia den sintagman tartekatzea hiperbaton batez —*horrenbertze Jaunari damu*— edo gaiaren eta *-le* atzizkidun hitzaren artean kokatzea —*hanbat kalte nerorriri erakarle*—. Ikusiko ditugu geroago egituraren konplexutasun sintaktikoaren beste erakusgarri batzuk. Hori baino lehenago, ikus ditzagun orain *-zaleren* agerpenak, *-le/-tzaile* hizkiaren aldaera bat besterik ez denarenak.

⁴ Hona hemen jatorrizko testua itzulpenarekin erkatu nahi duenarentzat: *Ah gorputz traidore orrenbeste Jaunaren ofensa, ta nire calte ecarri, ta eragin didana* (Cb Eg III 41).

1.4. *-zale* berdin *-le/-tzaile*

-le/-tzaile atzizkiak *-zale* aldaera dialektala erakusten du Iparraldeko hizkeretan, ondoko adibidean ikus daitekeenez:

- (9) Amoina, baita prinzesa eder bat eta handi bat, zonbat indar eta bertute dian eta zonbat linkoak maite dutian amoina egiliak eta hastio *amoinaren beharrari refusazaliak* (Tt *Arima* 117)

OEHk (VII: 133) *errefusatzaille*, *errefusazale* biak dakartza sarrera berean, eta beran jasotzen den adibidea ere gurea bezalakoxea da:

- (10) *Amoinaren pobriari refusazalia* linkoak punitzen du (Tt *Arima* 93)

Izan ere, *-zale* hau *-le/-tzaile* atzizkiaren aldaera dialektal bat besterik ez da,⁵ eta horregatik agertzen da aztergai dugun egitura berean. Antzera esan daiteke *barkazale* hitzaz, *barkatzaille* sarrerapean jasotzen dena *OEHn* (IV: 44).

- (11) Baina zareten elkargana benigno, miserikordioso eta *elkarri barkazale*, Iainkoak Kristez barkatu ukan drauzuen bezala (Lç Eph 4, 32)

Ostean, azken adibide klasikoan, datibo sintagma bat daukagu, hots, *elkarri* beselako osagarririk gabe. Aditzak, beraz, konfigurazio inergatibo datiboduna du adibide honetan, hau da, ergatibo eta datibo argumentuak biltzen dituen, ez iragankor datiboduna (vs. (9) adibidez) —ikus orobat 1.2—. Beste zenbait kasutan, oinarriko aditza inakusatibo datiboduna da, hots, absolutibo eta datibo argumentukoa, *jarraikizale* biltzen duten ondokoetan esaterako:

- (12) a. *Ezdeuskerier jarraiki zalek*, ützen dizie ürrikia soltazalia (Arch —Ion 2, 9— in BOEs 246)
b. *Jinkuaren legiari jarraikizalen* dohatsütartzüna (Arch —Ps tit 118— in BOEs 216)

Jarraikizalari dagokionez ere, goian *errefusazale* eta *barkazale* formez esandakoa berrets daiteke: *jarraikitzaile*ren hizkera aldaera dela (*OEHX*: 118). Bestalde, zeharbidez erakutsi dugunez, askotariko datibo sintagmak aurki daitezke egitura hauetan, eta askotariko konfigurazioak erakusten dituzten aditzei gaineratzen zaie *-le/-tzaile/-zale* sintaktikoa. Itzuliko gara geroago —3.2— gaiaren alderdi honetara.

2. *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkiaren aldeko ebidentzia gehiago

Orain arte *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkiarekin batera datibo sintagmak agertzen direla ikusi dugu. Atal honetan, inflexiozko atzizki bera daraman egiturak beselako osagaiak ere jaso ditzakeela erakutsiko dugu: postposizio sintagmak (2.1), aditzondoak (2.2), *-ela* konplementatzailedun perpausak (2.4) eta bestelako mendeko perpausak (2.5). Gai osagarriaren ezaugarriak ere begiratuko diegu (2.3) atalean.

⁵ *-le/-tzaile*ren aldagai hutsa ez den *zale* hizkirako, ikus Perez Gaztelu *et al.*ren (2004) deskribapena.

2.1. Postposizio sintagmak

-le/-tzaile inflexiozko atzizkiaz hona ekarri ditugun lehenengo erakusgarrietan, datiboak izan dira gure mintzagai nagusia, berez horiek direlako kuantitatiboki esan-guratsuenak egitura honen agerpen guztien artean. Ikusi dugunez, osagarria bera eta datiboz markatutakoa aditzaren barne argumentuak izanik, ez dirudi harrigarria denik datiboak izatea egitura honetan sarrien aurkitzen ditugun osagaiak. Alabaina, ez dira barne argumentuak bakarrik sintaktikoki gauza daitezkeenak *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia buru duen egituran. Izan ere, egitura hauetan, askotariko adjunktuek ere aurki daitezke. Ez dugu zerrenda zehatza egiteko asmorik, horretarako eskura baitauka irakurleak gure corpora lan honen eranskinean, baina adjunktuen nolakotasunaz eta aldakortasunaz berehala ohar gaitezke ondoko adibide sorta luzea ikusiz. Postposizio sintagmak erakutsiko ditugu lehenik eta adberbioak ondoren.

2.1.1. Soziatiboa

- (13) a. Eta berhezki jatera eman züten Josefi eta *Ejjiptar hareki barazkalzaler*, berhezki ere haren anaier (Arch —Gen 43, 32— in BOEs 101)
 b. Haurren urthia beno lehen *bereki eratzaliak*, ithotzen badira (FPrS 26)
 c. *Seroreki aragizko bekiaren egiliak* (FPrS 25)
 d. *Ezkontze ixil egiliak bere lagüneki* (FPrS 26)

2.1.2. Instrumentala

- (14) a. Txori mota güzietarik bia; ihizi mota güzietarik bia; *herrestaz ebiltzale* mota güzietarik bia; mota güzietarik bia zurekila han sarthüren dira, bizi ahal ditien (Arch —Gen 6, 20— in BOEs 28)
 b. Aizuari gaitzik egin eztieta, eta *lagünez laidorio errailer* behatü eztena (Arch —Ps 14, 4— in BOEs 123)
 c. Ingoiko *hegastinen plumez bestitzaillea*, / alde batetik berzera pasatzeko airea (EZ *Man* II 138)
 d. *Ezpataz hiltzalea*, ezpataz hiltzeko (Lç Decl ẽ 8v)
 e. Eretako barberaren zaldia, *Gaztalondon gaiaz ebiltzalia*, / hanko zerrallü petan itzalin gordia, / eia nurat jüten zeian bürüzagia, / espadeikük erraiten hik zerbait egia, / primak izanen dik aitarik gabe frütia (Etch 426)
 f. Aurtengo berezitasuna: hegoaldetik jinik, *dailuz edo segaz belar mozleak* ikusiko direla (Herr 2004-07-05, 5)
 g. Franximenteria leher eta zapart; eta oraino zer? Ez ateraldi pollit zerbeit; gure buruzagi, *frantsesez mintzatzaille* jaun bipilak jalitzen dituen egia bizardun hetarik, ez (HU *Kazeta* 370)
 h. Misiolariak etorritz geroztik, hiru errege izan dituzte Abome-n Dahometarrek buru; gizonodol ixurtzailleak eta *dirugosez esklabo saltzailleak* (Iratz *Afrika* 11)
 i. Zeren lanari lotzeko lagunak bazituen, zimarro-ihez ibili zirenetarik; ez ainitz bainan itzal oneko, jeinutsu eta zintzo: Garzia Arze, Baztandar adixkide mina; Diaz de Arles, ahaide hurbila; Lorenzo Zalduendo eta oraino bizpahiru, *hitzez eta aholkuz sustazaleak* ez konda (XI *Amazon* 165)

- j. Zorigaitzez, gerla muntatzaileak ez baitituk haatik *gerlaz pekatzaileak!* (Larz *Idaz* II 310)
- k. Euskal ekonomi, politikazalek eta abar egin dezatela bertze hoinbertze beren lan-gaietan. *Armaz borrokatzaileek* berdin. Eta saila guzitako guda-riek, ere (Larz *Mendi* 101)

2.1.3. *Inesiboa*⁶

- (15) a. Eta erran nuen nik: Jauna, berek badakite ni nintzela, zure baithan sinhes-ten dutenen preso ezarle eta *sinagogetan zehatzaile* (Dv Act 22, 19)
- b. *Sainduei beharretan laguntza egile, arrotzari leihor emaille* (Dv Rom 7, 13)
- c. Hala lehen zinelarik / *urean arrantzaille, / gizon basatuen egin / zintuen atzemaille* (EZ *Noel* 193)
- d. Funtsezko auzia heldu da gehiengoa bozkatu gabe egon zenetik: 54,5 inskriptuen ganean. *Etren egoileak* honenbertze izanki, jakin behar da zer-tako (XIr *Itzala* 41)
- e. Maite Goyhenetche ezterenzubiarra, 30 urte, *laborantxa alorrean animai-tzailea* eta Lurra elkartearen kidea (Herr 2006-03-16, 8)

2.1.4. *Adlatiboa*

- (16) a. Hunek ihardetsi zioen: Ez da hori *gudura berotzaileen* oihua, ez-etare ihes-igorleen deihadarra: bainan kantarien boza entzuten dut nik (Dv Ex 32, 18)
- b. Ez eta *huna jiler* nahi ihesi jun (Etch 412)
- c. Ezen *airera minzazale* izanen zarete (Lç 1 Cor 14, 9)
- d. Nahiz *Montebidorat juailik* desgutatü (Etch 458)
- e. Nihork, tentatua denean, ez beza erran Jainkoak tentatzen duela; ezen Jainkoa ez da *gaizkirat hizitatzaile*; harek berriz, ez du nihor tentatzen (Dv Iac 1, 13)
- f. Hartakoz ezpiritüz *zelialat so egile* aphür edireiten da, zeren aphürrek beitaie, bere bürrien osoki berhezten, kreatüra, eta gaiza galdü izan behar dien hoietarik (Mst III 31, 1)
- g. Bürdüñak huñetan beilütie bezala dütüzü, bere büriez phakü, eta hen maithazale direnak, nahiküntez, eta berri ikhasi beharrez betherik dau-dianak, *horrat hunat juailiak* (Mst III 32, 1)
- h. Hoiek hola igaraiten zielarik Ejiptoko erregiaren bi sehiek, *Edatera emai-liak* eta Ogi-hautsliak, hüts egin züten bere bürüzagiari (Arch —Gen 40, 1— in BOEs 94)

2.1.5. *Ablatiboa*

- (17) a. *Bidetik juaille güziek* arrogatü dizie, bere aizuen trüfagarritü düzü (Arch —Ps 88, 40— in BOEs 190)

⁶ Goiko (14e) ere atal honetan aipa daiteke.

- b. Etzare populuan izanen ez *aitzinetik jazarle*, ez *gibele* *etik jale*. Etzare oldartuko zure lagunaren biziari. Jauna ni naiz (Dv Lev 19, 16)
- c. Izpuran, *harrobietarik harri atheratzaile* batzuez kanpo, jende gehienak baratze zainak eta laborariak dire (Elsb *LehE* 117)
- d. Kuraia handia dutela hor dabilzanek, ba, mekanika hegaldun hoién asmatzaleak, egileak, gero-ta azkarrago, zaluago, eskukoago, *egunetik egu-nera ontzaleak*, hobetzaleak ez direla ttonttoak (HU *Kazeta* 308)
- e. Emazue bertzalde *haur boien Parisetik hunat⁷ igortzalek*, zeren diren gobernamendu erlisionearen etsai hunen gizonak oro, ez dutela onesten hoientzat otoi⁷zik, ez katiximarik, ez deus holakorik (HU *Kazeta* 324)

2.2. Adberbioak

Datuek berez duten interesagatik eta gure hipotesia indartzeko asmoz zerrendatu ditugu goian *-le/-tzaile* inflexiozkoak jaso ditzakeen postposizio sintagmak. Oraingo honetan, adberbioak erakutsiko ditugu asmo berarekin.

- (18) a. Tristant zen heien egiazko jujea eta *zuzenki baketzailea* (Elsb *LehE* 7)
- b. Madarika dadillala penen asmatzaillea / eta bekhatuak *hunén latzki puni-tzaillea!* (EZ *Man* I 101)
- c. Ezen baduk anhitz ranjea ezin daitenik eta *banoki minzazalerik*, eta adimenduen seduzialerik, prinsipalki Zirkonzisionetik diradenak: haei ahoa bozatu behar ziaiek (Lç Tit 1, 10)
- d. Eliza gizonen zonbat nahi *arbinzki xaflazaliak* (FPrS 25)⁸
- e. Ene ustez, kristau erlision badaude bi alderdi, teilatu batean bezala, bi eskualde, bi joera eta isuri: bata dinamikoa, ernea, beti *aitzina joailea*, konkistatzailea, hala nola Ameriken kolonizazioan ikusi dena, onerako eta txarrerako; bestea lasaia, baketsua, amultsua, burrunba, zalaparta, ttipikeria eta ontasunetatik askatua, hots budismoaren itxurakoa (Davant *Hauta* 93)
- f. *Goiz jekitzalena* izaiten ohi da fortuna (GAlm 1963, 6)

Postposizioek eta adberbioek osatzen duten adibide sorta luze honek erakusten du egituraren konplexutasuna ez dela datiboetara mugatzen: ez dira datiboak bakarrik, osagarriez gain, egituran azal daitezkeenak, askotariko postposizio sintagmek eta adberbio hutsek ere osatzen dute segida.

2.3. Gaia osagarri oso eta beregaina da

Datibo, postposizio eta abarrak arakatu eta gero, jarri gaitezen orain gai osagarriara begira. Gogoratu *-le/-tzaile* eratorpenezko atzizkia dugun kasuetan, gai osagarria hitz konplexu baten atal bat besterik ez dela. Adibidez, gure lanaren hasierako (1) adibi-

⁷ Azken bi adibideetan, ikusten denez, ablatibo eta adlatiboa jasotzen dira.

⁸ Beste adibide batean *gaizki erraile* ageri da. *Gaizki* hori adberbio zein izena izan daiteke. Ziur aski izena da, ez adberbioa agerraldi horretan. Hona hemen adibidea: *Nabas eta gal ditiela* nitzaz gaizki errailiak; *ahalke* *gorri ditiela ogen egin nahi deitadenak* (Arch —Ps 70, 14— in BOEs 172).

deko *diru-emaile* hartan, morfologialarien deskribapenean, *diru* eta *emaile* biek hitz elkartu berri bat osatzen dute. Gaiaren itxurari dagokionez, ez luke diferentzia handirik ekarriko pentsatzeak *diru-eman* hitz elkartua sortzen dela lehenago eta ondoren *-le/-tzaile* eratorpenezko atzizkia gaineratzen zaiola hitz elkartuari. Kasu batean zein bestean, gai argumentu hori sortu berria den hitzaren barruko osagaitzat hartu beharko litzateke. Argumentu horrek ez luke determinatzailerik erakutsiko, eta ez luke kasurik behar, hiztegian asetuko litzatekeelako.⁹

Alabaina, bestelakoa da osagarria *-le/-tzaile* inflexioa dugun egituran, zeren kasu honetan, gaia osagarri oso eta beregaina baita, eta ez hitz baten atala besterik. Determinatzailerik ez da azaltzen kasu askotan, adibidez, goian dagoeneko aipatu dugun ondoko honetan:

- (19) Aizuari gaitzik egin eztena, eta *lagünez laidorio errailer* behatü eztena (Arch—Ps 14, 4— in BOEs 123)

Baita adjektibo eta guzti agertzen denean ere:

- (20) Hurak dira eki debrien izpiritiak *gaiza izigarri egiliak*, eta badoatza lür orotako erregetara, haien güdükara biltzera, Jinko ahalorotakoaren egüneko (Ip—Apoc 16, 14— in BOEs 299)

Baina kontuan izan behar da determinatzailerik gabeko kasu hauetan, osagarria aditzaren ondo-ondoan agertzen dela, eta hori izan daitekeela determinatzailerik ezaren arrazoietako bat. Izan ere, osagarria adizetik urruntzen denean, orduan, determinatzailea hartzeko joera du, genitiboarekin batera:

- (21) a. Eta ziraden Maria Magdalena eta Ioana eta Maria Iakesen ama, eta berze hekin ziradenak, *gauza hauen Apostoluei erraileak* (Lç Lc 24, 10)¹⁰
 b. Iongoiko *begastinen plumez bestitzaillea*, / alde batetik berzera pasatzeko airea (EZ Man II 138)

Gogoan izatekoa da, halaber, osagarrien absolutibo/genitibo kasu alternantzia hori ere *-t(z)e* perpausetan aurkitzen dugula. Dena den, ez da determinatzailerik falta agerraldietako batzuetan:

- (22) a. *Bakea ekhartzaillea* (EZ Man II 194)
 b. *Saindu izena ukaillea* baino hobe, ukan izena saindutzea (Larz Mendi 20)
 c. Beheraxago emaiten duzu ezikasi batzu eta makila bi burutarik atxikitzen dutenak gehienik direla mintzo; ni ez naiz *makila bi burutarik atxikitzaile* horietarik, bainan ttipiak ere badu bere libertatea, bere ikus moldearen emaiteko; emaiten ere duzu ixilik lanean ari direnak direla gutienik aipatuak (Herr 2006-04-20, 6)

Determinatzaile plurala jasotzen dute ondokoek:

- (23) a. O Iaun, *Prinzeak ozpiñaz lotsarazitzailea*, / nondik zure handi baita eza-gun podorea (EZ Man II 111)

⁹ Igone Zabalarri zor diogu ohar hau.

¹⁰ Goian eman ditugun (6) eta (14c) adibide berberak dira hauek.

- b. Madarika dadillala penen asmatzaillea / eta *bekhatuak hunen latzki punitzaillea!* (EZ *Man* I 101)
- c. Komersant, hiri agintari eta *papurrak biltzailleak*: irrati lokalak (Luku *Iban* 79)
- d. Nere nagusia dut hola ta / *egi onak erraileak*, / eta atzetik ostiko eman; / hoik dira Jainko-jaleak (Xanpun 165)

Eta partitiboaz markatu da ondoko honetan:

- (24) Aphes hunak dirade, *abis hunik emaile* / Mündüko hun plazer eta, uhures kasü gabe / Karitatus esti prudent, ümil, unest eta sobre / Munseignur berthüte hoies, zü doratürük zirade (Etch 604)

Ostean, determinatzailea ere gaineratu zaio adjektiboa ere erakusten duen honetan:

- (25) *Gaizki andiena guri egillea!* (Haris 79)

Batzuetan adjektiboez gain, bestelako modifikatzaile konplexuak erakusten ditu osagarriak, adibidez:

- (26) Ezen Demetrius deitzen zen zilhargile, *Dianaren zilharrezko tenpletxogile* batek, anhitz irabaz eraziten zerauen ofiziokoei (Lç Act 19, 24)

Temple osagarriak *-txo* txikitzailea ere erakusten du, eta horrezaz gain, *Dianaren zilharrezko* modifikatzaile konplexuak laguntzen dio. Dena den, agerraldi honetan, osagarria aditzaren ondoan lerratzen den kasu gehienetan bezala, ez du determinatzaile erakusten eta ziur aski mugagabea da.¹¹

Ikusten denez, osagarria ez da hiztegi mugatzen eta gardena da sintaxian. Horregatik, hain zuzen, jaso ditzake batzuetan determinatzaile mugatu singular eta plurala zein partitiboa, adjektiboa zein bestelako modifikatzaileak, hitz sorkuntza hutsean ezinezkoak direnak. Determinatzaile gabeko kasuetan ere osagarriak aditzarekin duen ondokotasuna kontuan hartu beharra dago determinatzaile eza arrazointzeko: ondokotasun hori hautsiz gero, orduan gehienetan osagarriak genitiboa erakusten du determinatzailea ere duen sintagma batean. Osagarriak, beraz, kasua jaso beharra du sintaxian, eta kasu hori absolutiboa edo genitiboa da, hizkera hauetako *-t(z)e* perpausetan ohikoa den bezala.

2.4. *-ela* mendeko perpausa ere biltzeko ahalmena

Urratsez urrats erakusten ari gara *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia morfologiaren eremuko eratorpenezko hizki hutsetik bereizi beharra dagoela, eta absolutibo eta datibo sintagmak ez ezik, askotariko adjuntuak ere biltzen dituela sortzen duen egituran.

Oraingo honetan, beste erakusgarri sintaktiko bat gehiago gaineratu nahi dugu sorta honetara: *-le/-tzaile* inflexiodun egiturak mendeko perpaus bat ere jaso dezake.

¹¹ Itzulpenaren jatorriko testuak ere mugagabea du: *Car un nommé Demetrius, ouvrier d'argenterie, qui faisait des petits temples d'argent de Diane, faisait beaucoup gagner à ceux du métier.*

Ez dira asko egitura honen erakusgarriak gure corpusean. Hona hiru baino ez ditugu ekarriko. Duvoisininak dira lehenak¹² eta Intxausperena hirugarrena. Intxausperena eta Duvoisinin lehena bertset beraren bi itzulpen dira:

- (27) a. Badakizkit zure eginak, eta nekheak, eta egartzeak, eta nola gaixtaginak ezin jasan ditzazketzun, eta haztatu ditutzula *apostolu zirela erraileak*, hala etzirelarik, eta gezurretan atzeman ditutzu (Dv —Apoc 2, 2— in BOEL 247)
- b. Huna non Satanen bilkhutik emanen darozkitzutan *Juduak direla erraile* batzuek, eta ez dira hala, bainan gezurrez dira mintzo. Huna non ethorraziko ditudan, eta khurtuko dira zure aitzinean, eta jakintsun eginen dira nola zaitudan maite (Dv —Apoc 3, 9— in BOEL 249)¹³
- c. Badakitzat zure egitatiak, eta zure nekia eta zintarzüna, eta ezin ditzazketzula egar gaistoak; eta ikhertü dütüzüla *apostolü direla errailiak*, ez-tirelarik; eta gezürti ediren dütüzü (Ip —Apoc 2, 2— in BOEs 285)

Adibideetan ikusten denez, *erran* aditza da egiturakoa eta aditz horrek *-ela* konplementatzailedun perpaus jokatua du osagarri. Agerpenak mugatuak izan arren, berriro ere egitura osoaren konplexutasun sintaktikoa erakusteko modua ematen digute.

2.5. Mendeko perpausen bestelako erakusgarriak

Goiko atalean aipatu dugun *-ela* mendeko perpaus gain, gure corpusean, bestelako mendeko beste perpaus bat biltzen duen honako erakusgarri hau jaso dugu:

- (28) Elizak, eliza gizonen, edo haiek nahi dütien arrandatek bere honak *goza ez-titzen [=ez ditzten] gibelzaliak*, eta *haien züzenen gordazaliak bortxaz, mehatxuz edo nola nahi* (FPrS 26)

Egiturak, ikusten denez, denetariko osagaiak ditu ia, eta horrek bere izaera sintaktikoa zehazteko bidea emango digu geroago —3. atala—. Egituraren barruko osagaien hitz hurrenkeraz eta bereziki azken adibideak erakusten duenaz ere aurrerago hitz egingo dugu —3.6 atala—.

¹² Duvoisinin bi adibide hauek ez dira Bibliaren bertasio oso eta kanonikoan ageri, Apokalipsiaren beste bi itzulpen *albokoetatik* batean baizik. Rosa Miren Pagolaren (1992-1999) *Bonaparte Ondareko Es-kuizkribuak* bilduman argitaratu ziren bi itzulpen alboko horiek. Apokalipsiaren bertasio horietako batean ageri dira Duvoisinin bi adibideok.

¹³ Testu erkaketa egin nahi duen irakurlearentzat, hona hemen bertset bi hauen beste bertasio bana, Duvoisininak berarenak. Bietan idazleak darabilen estrategia bera da: erlatibozko perpausak gure egituraren orde:

- i. Badakizkit zure eginak eta nekheak, eta egartzeak, eta ezin jasan dezazketzula gaixtaginak; eta haztatu ditutzula beren buruak apostolutzat ematen dituztenak, eta hala ez direnak; eta gezurretan atzeman ditutzu (Dv Apoc 2,2)
- ii. Huna non Satanen bilkhutik emanen darozkitzudan *Juduak direla erraten duten* batzu; eta ez dire hala, eta gezurrez mintzo dire: Huna non ethorraziko ditudan, eta khurtuko dire zure oinen aitzinean, eta jakintsun eginen dire nola zaitudan maite (Dv Apoc 3,9)

3. *-le/-tzaile* inflexiozkoaren analisi baterako lehen urratsak

Orain artean, *-le/-tzaile* atzizkia deskribatzen saiatu gara, eta erakutsi dugunez, ez da eratorpeneko, eta hortaz, hitz sorkuntzazko atzizki hutsa, syntaxira lerratzen gaituen morfema bat baino. *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkia deitu diogu, irakurleari ezagunagoa zaion eratorpeneko atzizkitik bereiztearren. Ondoko lerroetan, *-le/-tzaile* inflexiozko atzizkiaren analisirako lehen urratsak egingo ditugu. Beraz, ez da analisi oso bat izango hemen irakurleari eskainiko dioguna, ez bada analisi posible baterako go-goan izatekoak.

3.1. *-le/-tzaile* zer ote?

Atalez atal erakutsi dugu zein diren *-le/-tzaile* inflexiozko hizkiak barnebil ditzakeen osagai guztiak. Orain galdetzen has gaitezke zein ote den egitura osoaren izaera eta perpaus baten barruan non eta nola ager ote daitekeen.

Gure corpusean inflexiozko *-le/-tzaile* egitura nagusiki nominalizaturik edo izen bihurturik ageri da, eta determinatzaile batek laguntzen du. Hortaz, determinatzaile sintagma (DS) biltzen du egitura osoa, eta sintagma horrek jasotzen duen kasu markaren araberako estatusa du perpausuan. Esate baterako, goian dagoeneko aipatu dugun perpaus honetan:

- (29) Madarika dadillala penen asmatzaillea / eta bekhatuak hunen latzki punitzaillea! (EZ Man I 101)

Bekhatuak hunen latzki punitzaillea DS sintagma da; absolutibo kasua jasotzen duenez, argumentua da perpausuan, eta subjektu gunean ageri da argumentu hori.

Datu berriagoak harira ekarriz, ondoko honetan ere, absolutiboaz markaturiko subjektua da *-le/-tzaile* biltzen duen DS:

- (30) Eüskaraz erakastea debetatzen dü legeak, / gaztigatürük dirate eüskaraz arizaleak (Davant Abadia 80)

Eta osagarria, berriz, honako bietan:

- (31) a. Sindikatu deitzaleek saminki salatu dute jaurlaritzaren aldetik bost ahalak eginak izan direla, *greban parte hartzaleak* lotsatzeko (Herr 2009-05-28, 2)
b. Hor ikusiko dituzu “muss”-lari handi eta famatuak, kaseta irakurtzaleak eta *telebisionari so egileak* (GAlm 1960, 20)

Ergatiboz markatutako subjektuak ere ez dira falta:

- (32) Egia da, *gaizki liseritzailek* maiz burua mintsu dutela (GAlm 1962, 60)

Eta irudi osoa ematearren, azkenik, postposizio sintagma baten barruan ageri da *-le/-tzaile* egitura ondoko honetan adjunktua gisa:

- (33) Madrileko trein bideetan martxoan egin zen atentadu hartaz, 191 hil izan baitziren eta 1824 kolpatu, auzia aitzina doa hobendunen aurkitzeko, *hamar bonba lau treinetan ezartzaleez* eta izigarrikeria haien supiztalez (Herr 2007-02-22, 2)

Irakurlea ohartuko zenez, bestalde, *-le/-tzaile* egituraren barruan ez dago ageriko subjektuaren arrastorik, ez hona ekarri ditugun adibideetan, ez corpuseko gainerakoetan ere.¹⁴ Gogoratu eratorpenezko *-le/-tzaile* atzizkiak ari ginela esaten genuenez hark oinarriko aditzaren egile argumentua xurgatu egiten duela, eta argumentu gune hori ahiturik, egilea ez dela berriro syntaxian zertzen. Ez dakiguna da eratorpenezko *-le/-tzaile* atzizkiak duen ahalmen hori bera ez ote duen inflexiozko *-le/-tzailek* ere izango, alegia, aditzaren kanpo argumentua eta bere kasua asebetetzeko ahalmena.¹⁵ Hala balitz, litekeena da atzizkiaren osagarria aditz sintagma (AS) hutsa izatea eta ez hori baino goragoko islapena. Dena den, ez da hau, jakina, formula litekeen hipotesi bakarra, eta geroago erabiliko dugun hipotesi sintaktikoan, *-le/-tzaile* hizkiak beste estatus bat ere izan dezakeela erakutsiko dugu. Momentuz garrantzia duena da gogoratzea subjektua agerian, bederen, ezin daitekeela egituraren barruan ageri.¹⁶

Jakina, ageriko subjekturik ez egoteak ez du esan nahi subjekturik ez dagoenik. Kontuan izan egitura honetan badirela anafora bihurkaria biltzen duten adibideak. Hona:

- (34) a. Jende xeheaz, populuaz baino are egiago da hau buruzagiez; herrietako auzapez, axuant, boz-biltzale, *beren buruei zu errailez* (HU *Zez* 194)
 b. *Zunbait bere bürrier gogua aphür emaile*, debozione soberak gal erazi ükhen dütü; zeren ahal ziroien beno haboro egin nahi ükhen beitie, izartü faltaz bere aphürtarzüna, eta nahiago (Mst III 7, 2)

Adibideetako anafora bihurkariak (*beren buruei/bere bürrier*) ezin daitezke interpretatu aitzindariarik ez badute. Aitzindaria, kasu bietan, *-le/-tzaile* gaineratzen zaion aditzaren kanpo argumentua edo subjektua da. Subjektu hori ziur aski ezkutukoa da kasu bietan ere.

Bestalde, *-le/-tzaile*dun DS hori predikazioan ageriz gero, orduan, egituratik kanpo dagoen subjektu batekin harremanetan sortzen da predikazioa. Gure corpusean bada, asko eta askoren artean, adibide bat predikazio harreman hori erakusten duena:

- (35) Nere gostuko, zion neska batek, senar batek behar likek izan, ederra, mintzatzalea, *ixtorio alegera kondatzalea* eta *aratsetan etxen egoilea* (GAlm 1977, 60)

Kasu honetan, letra etzanaz markatu ditugun gure *-le/-tzaile* egitura biek *senar bat(ek)* dute subjektu eta subjektu horretatik predikatzen dira; ondoko adibidean, berriaz, *ni* da predikazioaren subjektua:

- (36) Eta kontseilu beharretan omen da nolakoa aukera! Eta denek dakiten bezala, ni bainaiz *andreekin ibiltzailea*, eta heien ezagutzeko espezialista, horra zergatik dei egiten duen (Larz *Idaz* IV 251)

¹⁴ Ezta balizko inongo adibidetan ere.

¹⁵ Eskerrak eman nahi dizkiogu Jon Ortiz de Urbinari *-le/-tzaile* hizkiaren estatus sintaktikoari buruz gurekin izan duen eztabaida aberasgarriagatik.

¹⁶ Horrek, jakina, ergatibo, absolutibo eta datibo argumentuei eragiten die, alegia, subjektu izan daitezkeen guztiei.

-le/-tzaile biltzen duen DS, beraz, kasu sintagma, postposizio sintagma baten barruko osagaia edo predikatua izan daiteke perpausaren barruan.

3.2. Inflexiozko *-le/-tzaile* atzizkiaren osagarriaren izaeraz

Morfologialariek eratorpenezko *-le/-tzaile* atzizkia definitzen dutenean, aditz inergatibo zein iragankorrek diren oinarriei gaineratzen zaiela diote —ikus Gràcia *et al.* (2000: 494)—. Lan berean, salbuespentzat jotzen dituzte oinarrian aditz inakusatiboak jasotzen dituzten eratorpenezko hitzak (*joaile* eta *egoile* dira aipatzen dituzten salbuespenak). Aldiz, inflexiozko atzizki bikiak, ez dirudi halako murriztapenik duenik. Gorago esan dugun bezala, askotarikoak dira *-le/-tzaile* inflexiozkoa jasotzen duten aditzak eta euren konfigurazioak. Esate baterako, inakusatiboei dagokienez, Gràcia *et al.*-k (2000: 494) esplizituki ez-gramatikaltzat jotzen dituzte oinarriko aditz inakusatibo bati gaineratuz sortzen diren honako hitz eratorri guztiak: **agertzaille*, **ibiltzaille* eta **etorle*. Bada, inflexiozkoa ondoko inakusatibo guztiekin batera aurkitu dugu gure corpusean —tarteen aipatu berri dugun lanean, ez-gramatikaltzat hartzen direnak ere—: *argizale*, *agertzale*, *bizitzale*, *ibiltzaille*, *egoile*, *etorle*, *jaikitzaile*, *jarraikitzaile*, *joaile*, *jile*... Ez dirudi, beraz, hautu lexiko tarteka idiosinkrasikoa denik *-le/-tzaile*ren ezarpena zuzentzen duena, ez bada sintaktikoki orokortua dagoen aukera.¹⁷

Batzuetan, badira inkoatibo/arazle alternantzia dela bide, sintaktikoki anbiguoak izan litezkeen kasuak. Adibidez, *baliatu* aditza izan liteke horietako bat, baina kasu honetan eta gehienetan, teorikoki egon litezkeen bi aukeretatik bat bakarra da gero corpusean jasotzen dena.

- (37) Hauxe errepikatzen zuen ardura Kofi Annan-ek, berak ere gazte zelarik entzuna omen, munduko estatu puxantenak ahulago direnen laguntzaile behar direla eta ez heien menperatzale edo *heietaz baliatzale* (Herr 2007-01-18, 8)

Hau da, hizkera hauetan *baliatu* aditza inkoatiboki ez ezik, arazle aukeran ere aurki litekeela uste dugun arren, corpusak ez du halakorik biltzen.

Beste batzuetan, oinarrian dagoen aditza, inakusatiboak bezalaxe itxuratzen den inergatiboa da, esate baterako, *mintzatzale*:

- (38) Hobe segur! Agian *lumaz mintzatzalerik* ederrenari untz-urre bat emana izanen zako koblaririk xoragarrienari bezala, geroan ikusiko diren guduetan! (JE *EuskG* 18)

Gràciak *et al.*-k (2000) ere jasotzen dute hau bezalako forma eratorria, eta goiko adibidean, ikusi dugunez, bere bertsio sintaktikoan azaltzen da. Badira *mintzatu* be-

¹⁷ Honi dagokionez, sortzen zaigun galdera da ea Iparraldeko *-le/-tzaile/-zale* hori inflexiozkoa den beti ala ez nahitaz. Izan ere, batzuetan eratorpenezkoa dirudi eta besteetan, berriz, osagarri konplexua jaso dezakeen inflexiozkoa. Konparatu ondoko adibideak: *Jada berrogoita hamar bat bizitzale bazen etxe hartan* (Zerb *Babnar* 67) (OEH V: 476) eta *Edo ditila izan emazte alla gizon*, kumentü hoitan bizizalek *badie mereximentü* (Galm 1929, 34). Eratorpenezkoa ere baldin bada Iparraldeko *-le/-tzaile/-zale* atzizkia, orduan Gràcia *et al.*-ren (2000) deskribapenak hizkera soslaia du eta Hegoaldeko atzizkiak dihardu, ez Iparraldekoaz, Iparraldean printzipioz edozein aditz inakusatibok jaso baitezake atzizki hori.

zalakoxe beste aditz batzuk, izatez inergatiboak izan arren, konfigurazio inakusatiboan (*borrokatu naiz*) zein inergatiboan (*borrokatu dut*) itxuratu daitezkeenak, baina Iparraldeko hizkera hauen hautu bakarra lehena dela kontuan izanik, hauek ere inakusatibotzat hartu behar direla uste dugu.

- (39) a. Euskal ekonomi, politikazalek eta abar egin dezatela bertze hoinbertze beren lan-gaietan. *Armaz borrokatzaleek* berdin. Eta saila guzitako guda-riek, ere (Larz *Mendi* 101)
- b. Jüj'itzatzü, Jauna, eni ogen egiliak, armak khent zetzü *ene kuntra güdüka-zaler* (Arch —Ps 34, 1— *in* BOEs 140)

-le/-tzaile aditz inakusatibo bati gaineratzen ahal bazaio, dagozkion osagarri eta adjunktuekin, orduan, osagarria AS dela pentsa dezakegu. Dena den, ez da AS soilik atzizkiak osagarri bezala jaso dezakeena. Izan ere, aditza inergatiboa zein iragankorra den kasuetan, orduan aditz txikia buru duen sintagma izango genuke (*aS*).

3.3. Goragoko beste islapenik?

Osagarria AS hutsa, *aS* edo hori baino goragoko beste islapenen bat izan ote daitekeen erabakitzeke hipotesi teorikoak berak berebiziko garrantzia duen arren, ebidentzia enpirikoak ere laguntzen du hipotesi bat ala bestea hobestean. Goragoko islapenik ba ote dugun jakiteko, badago gure corpusean esanguratsua izan litekeen adibide bat:

- (40) Ebanjelioa hitzez hitz hartzen badugu, igurika ditzazkegu bekatoros ohi parrasta bat: zazpi senar ukan zituen Sarraritarsa; —ema-galduak emazte ohatze egilearekin; —publikanoak eta bekatoarek Zakeorekin; —ohoinak lapur onarekin; —*elizan ez-ibiltzaleak* ehuntari erromanoarekin (GAlm 1984, 41)

Adibidean ikusten denez, ezezko *perpaua* da hemen *-le/-tzailek* osagarri gisa duena, hau da, *elizan ez-ibiltzaleak* elizan ibiltzen *ez* direnak dira. Perpaua diogu egituraz ari garela lehenengoz, ezeztapenak erakusten duelako AS edo *aS* baino gorago dagoen islapen bat dugula, ziur aski perpauztat har daitekeena. Erabaki beharko da ea islapen hori inflexio sintagma (InflS) ala besterik gabe, denbora sintagma (DenbS) den, ala are goragoko beste islapenen bat. Ezeztapenak eta ezeztapen sintagmak DenbSrik hartzen badu osagarri, orduan oso litekeena da DenbS bera baino gorago dagoen islapena izatea *-le/-tzaile*ren osagarri osoa.¹⁸

Dena den, hau behin behineko hipotesi bat baino ez da. Corpus osoan, adibide bakarra izateak zerikusia izan dezake baiezko perpausen ondoan ezezko perpausek duten maiztasun txikiagoarekin. Alabaina, kopuru txiki horrek zerikusia izan dezake berez egiturak ezeztapenerako duen murriztapenarekin. Ondoren erakutsiko dugunez, gure egiturak partizipio egiturekin zerikusi handia duela dirudi, eta partizipio

¹⁸ Ikus Zanuttini (1996) italiarren partizipio egituretarako, zeinetan perpau ezeztapenik ez dagoen eta ondorioz DenbSrik ere ez dagoela proposatzen duen.

egiturek ere, oro har, ezeztapenerako murriztapenak dituzte. Erlatibozko perpaus jokatugabeetan ere ez dago, salbuespenak salbuespen, ezeztapenerako aukerarik (Oihartzabal 2010).

3.4. Euskal partizipio predikatuen analisi batez

Inflexiozko *-le/-tzaile* egitura hau euskararen zenbait partizipio egituren antzekoa da nolabait. Ortiz de Urbina eta Uribe-Etxebarriaren (1991) lan interesgarrian, partizipioetatik bereziki predikatutzat har daitezkeen kasuak aztertzen dira, eta euren analisiak gure balizko analisi baten hastapenak biltzen dituela ere esango genuke. Egileek diotenez, partizipioek adjektiboen ezaugarri asko dituzte, besteak beste, izenak modifikatzeko gaitasuna, aributu batez (a) edo predikazioaren bitartez (b). Hauexek, euren adibideetatik bi:

- (41) a. Etxe polit eta apaindua
- b. Liburua Jonek idatzia da

Bereziki, beste analisi batzuei aurre eginez, (b) egitura bikoitza dela diote egile hauek: *izan* (edo **edun*) aditz nagusia du batetik eta bestetik partizipio egitura bera. Interesgarria dena da, euren analisisian, mendeko partizipio egitura DStzat hartzen dela, eta DS hori guztia, argumentuaren modifikatzailetzat:

- (42) Liburua [Jonek [e] idatzia]_{DS} da

Determinatzaile sintagmatzat hartzeak azaltzen du, besteak beste, zergatik ez duten aditz laguntzailean edo inflexioan komuntadurarik eragiten DS horren barruan bildurik dauden argumentuek. Azken adibidean, ikusten denez, *Jonek* ergatibo argumentuak ez du *da* aditz laguntzailean komuntadurarik eragiten (eta ez du aditz laguntzailea bera aldarazten). Halaber, partizipioen zein nominalizazioen argumentuak ezin daitezke *nahasi* perpaus nagusiko argumentuekin, berez nahikoa hitz askea den hizkuntzaren hurrenkera aukerak asko murriztuz. Ondoren ikusi dugunez, ezaugarri hauek biak gure *-le/-tzaile* egiturarako ere jaso daitezke.

Ez ditugu, jakina, hemen laburbilduko egileon ekarpenaren xehetasunak. Alabaina, euren analisisaren oinarriak dira bereziki gure interesekoak. Hau da, partizipioen kasuan, operatzaile isil bat tarteko gertatzen da predikazioa, egile hauen ustez. Horrela, partizipio egitura hauek kanpoko elementu batetik predikatzen dira. Erlatibozko egiturekiko antzekotasuna azpimarratzen dute honi dagokionez. Goiko adibidearen analisisian, bada, honelako egitura bat (a) izango genuke, erlatibozko perpausaren egiturarekin (b) konpara daitekeena:

- (43) a. Liburua [OP [Jonek_t idatzia]] da
- b. [OP [Jonek_t idatzi zuen]] liburua

Egitura hauetan, operatzaile isilak argumentu gunean dagoen hutsunea A'-uztarten du. Egituran, *t(race)* edo aztarna delakoak erakusten du zein den partizipio egituratik atera den argumentua. Argumentu hori, ikusten denez, osagarria da kasu honetan. Orobat, operatzaile isila predikazioaren subjektuaren erreferentzia-kidea da. Diferentziak diferentzia, antzeko analisisia proposa liteke *-le/-tzaile* egiturarako. Adibide abstraktu batez baliatuko gara egitura irudikatzen:

- (44) a. Senarra [OP [_t arratsetan etxean egoilea]]da
 b. [OP [_t arratsetan etxean egoten den]] senarra

Honelako analisi bati dagokionez, azpimarratu beharra dugu operatzaile isila nahitaez subjektua dela gure egituran (ez osagarria). Partizipioarekin, aldiz, operatzaile isila absolutiboa da, subjektua edo osagarria —(43) adibidean, osagarria da—, eta ergatiboa ere izan daiteke *Jon asko irakurria da* bezalako adibideetan.

Analisi honek gure egituraren eta erlatibo generiko edo libreen arteko antzekotasunak azaltzen ditu, adibidez, *zuri laguntza emaileak* eta *zuri laguntza ematen dizutenak* bezalakoan artean egon daitezkeenak. Erlatibozkoan ere operatzailea dago, goiko egituran erakutsi dugun bezala, baina izen ardatzik ez badu, hots, sintagma bururik ez badu, zero bat hor sakatuz alegiazko buru batekin moldatzen gara interpretazio kanonikoa behar duela zehaztuz. Antzera gertatzen da gure egituran ere. Goian aipatu eta aztertu berri duguna bezalakoxe predikazio batean, adibidez, *kazeta egia erraileak* diogunean, kazetetz diogu egia erraile direla. Jakina, subjektu agerikorik gabe erabiltzen bada sintagma, hau da, izen sintagma bat balitz bezala, orduan subjektu kanonikoen ezaugarriak izango ditu. *Egia erraileak isilarazi dituzte* esaten badut, jendeaz ari naiz, ez bereziki kazetetz. Gauzak hala izanez gero, orduan paralelismo osoa dago gure egituraren eta erlatibo libreen artean.

3.5. *-le/-tzaile* barruko datiboak ez du inflexioan komunztadurarik eragiten

Ikusi berri dugunez, Ortiz de Urbina eta Uribe-Etxebarriaren (1991) analisisan partizipioa DStzat hartzen da eta DS horren barruko argumentuek ezin dute aditz laguntzailean edo inflexioan komunztadurarik eragin. Hori bera esan daiteke, gure ustez, *-le/-tzaile* egituraz ere. Bestalde, partizipio predikatuetan, subjektua bera esplizituki ager daiteke (*Jonek idatzia*), baina gure egituran ez. Hortaz, izatekotan, datibo argumentuak baino ezin lezake komunztadura eragin inflexioan. Adibidez, jo dezagun berriro goian (4) aipatu dugun adibidera:

- (45) Zure borondatea da amudioz bethea, / eta *gizonei ontasun komunikatzailea* (EZ *Man* II 15)

Gure hipotesiaren arabera, elipsirik gabeko perpausa ondokoa (a) izango litzateke, ez (b).

- (46) a. Zure borondatea da gizonei ontasun komunikatzailea
 b. *Zure borondatea zaie gizonei ontasun komunikatzailea

Hau da, *gizonei* datibo sintagmarekiko komunztadurarik ez dugu espero. Are gehiago, ageriz gero, perpaus ez-gramatikala izatea espero genezake. Murritzapena ez da, beraz, morfologikoa, (b) adibidean ez baitago morfologikoki datibo komunztadura eragoz dezakeen ezer, sintaktikoa baizik.

Inflexioan komunztadurarik ez eragitea, gure ustez, beste ezaugarri sintaktiko baten ondorioa da, hots, datibo sintagma hauek ez dira *-le/-tzaile* egituratik ateratzen. Edo bestela esanda, sintaktikoki egitura horrek barnebiltzen du datibo sintagma (eta bestelako osagaiak beste agerraldi batzuetan), eta bertan ageri diren osagaiak ez die egituratik kanpora mugitzen uzten. Sintagma horretatik aterako balitz eta perpaus-

saren egituran gora egingo balu, orduan, inflexioaren eremura heldu liteke eta komunztadura eragingo luke, baina, ikusi dugunez, ez da hala.

Corpusak baieztatzen du gure hipotesia bestelako adibideetara jotzen dugunean, ondokoetara esate baterako:

- (47) Bilhatuko ditutzu zuri bihurtzen zaizkitzun gizonak, eta ez ditutzu khausituko: ez balira bezala eta xahutuak bezala izanen dira gizon *zuri gerla egileak* (Dv Is 41, 12)

(*Izanen*) *dira* adizkiaren ordeztan, datibo komunztaduradun *izanen zaizkizu* izango genuke, baldin eta *zuri* sintagma *-le/-tzaile* egituratik atera eta inflexiora igoko balitz. Ikusten denez, ez da hala.¹⁹

Komunztadurara begira, bestelako datu interesgarriak daude gure adibidetegian, hipotesia berresteko bidea ematen digutenak. Goian (8a) dagoeneko eman dugun adibide bera da hauxe:

- (48) Pharkatzen dit etsaier, *eni sofri-erazler* (Etch 146)

Perpau honetan, *etsaiei* datibo argumentua dago. Adibideko *dit* zuberoraz *dut* adizkiaren *zükako* forma da (*dizüt > dut*) eta ez du datibo argumentuarekiko komunztadurarik erakusten. Kasu honetan, ipar-ekialdeko hizkeren datibo komunztaduraren galera fenomeno orokorrari zor zaio komunztadura ezabatzea (Etxepare & Oihartzabal 2008a,b,c, Fernández eta Landa 2009, eta Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa 2010). Ondoren aposizioan ageri da *sofri-erazler*, datiboaz markaturik hau ere, eta bere barruan biltzen du *eni* hirugarren datibo sintagma. Bada, *eni* datibo sintagma horrek ere ez du komunztadurarik eragiten laguntzailean, goian eman dugun arrazoi berarengatik, hain zuzen: *-le/-tzaile* egiturak biltzen dituen datibo sintagmak (eta ezta bestelako osagaiak ere) ezin daitezke bere barrutik atera eta inflexioaren eremura iritsi.

3.6. *-le/-tzaile* egiturako osagaiak hitz hurrenkera murriztapenak dituzte egituratik kanpo

Ikusi berri dugunez, *-le/-tzaile* egitura barruko datibo sintagmek komunztadurarik ezin eragitea, datibo sintagma horiek egituratik ezin ateratzeari zor zaio. Beraz, badi-rudi datibo sintagma horiek zein gainerako osagaiak hitz hurrenkera murriztapenak dituztela, eta ezin daitezkeela edozein hurrenkeratan ageri *nahasketaren* edo *scramblingaren* bitartez, egituratik kanpo atereaz. Hori bera ikusten dute Ortiz de Urbina eta Uribe-Etxebarriak (1991) partizipio predikatuen eta oro har, nominalizazioen analisisian, goian dagoeneko aipatu dugun bezala. Adibidez:

- (49) Othoitz ere egizu, *zuri yazarlentzat* / mundu huntako hau, ezta goxo hanbat (Gy 38)

¹⁹ Puntu honetara helduta, hiztunen juzguak behar dira ezezko ebidentzia lortzearen eta gure hipotesia berrestearren.

Nekez imajina daiteke, adibidez, *zuri* datibo sintagma honela ager daitekeenik perpausean:

(50) *Zuri othoitz ere egizu, yazarlentsat

Edo ondoko adibidera joaz:

(51) Pharka itzagützü gure ogenak gük *guri ogenegiler* pharkatzen dügiin bezala (Ip in BOEs 365)

Ez dugu uste ondoko ordaina izan genezakeenik:

(52) Pharka itzagützü gure ogenak gük ogenegiler pharkatzen dügiin bezala guri

Beraz, egituraren barruan, osagaiek nahikoa hurrenkera askea dutela ikus daitekeen bitartean —jo besterik ez dago orain artean emandako adibide sorta luzera—, argumentuek eta abarrekegituretik kanpo han eta hemen lerratzeko murriztapenak dituztelakoan gaude: egitura barruko argumentuak ezin daitezke perpaus nagusiko argumentuekin nahasi, egituretik aterez.

Dena den, gure corpusean badira salbuespenak. Izan ere, adibideetatik gehien-gehienetan, *-lel-tzaille* hizkiak sortzen duen egiturako osagai guztiak ezkerretara lerratzen diren arren, agerraldi batzuetan, eskuinetara ageri dira osagaietatik batzuk. Ikus, esaterako, ondokoa:

(53) Geroztik izan dira bai *Mgr Terrier-i erraileak ez zutela Herria-ren buruzagia arras beren gostukoa* (Lf Hauta 409)

Erran aditzaren osagarri perpausa (*ez zutela... gostukoa*) ez dago *erraileak* hitzaren ezkerretara, eskuinetara baino. Hurrenkera nolabait markatua duen perpausa dirudi. Kontuan izan existentzia predikatu batean ageri dela sintagma. Ondoko agerraldia ere nahiz eta diferentea den, hurrenkera kanonikoaz kanpokoa dirudi.

(54) Elizak, eliza gizonak, edo haiek nahi dütien arrandatek bere honak *goza ez-titzen gibelzaliak*, eta *haien züzenen gordazaliak bortxaz, mehatxuz edo nola nahi* (FPrS 26)

Adibideko *bortxaz, mehatxuz edo nola nahi* zerrenda *gordazaliak* hitzaren eskuinetara ageri da, ez ezkerretara. Berrito ere, hurrenkera kanonikoa hausten duten estrategiak dirudite hauek.

Azkenik, beharbada izenaren ondoko datiboak etorriko zaizkio gogora irakurleari ondoko adibidera begira —gaiaren inguruan ikus Makazaga (1999), Zabala (1999), Albizu (2001), DeRijk (1988, 1993), eta Fernández eta Sarasola (2010)—.

(55) Pariseko hiria baitzen egundainotik ordu artio modaren asmazale eta *emai-lea mundu guziari* (JE *Kazeta* 240)²⁰

Beraz, salbuespenak badira, baina salbuespen horien hurrenkera nolabait markatuz har daitekeelakoan gaude. Hurrenkera ez-markatuko adibideetan, aldiz, nahi-

²⁰ Dena den, izenaren ondoko datiboak ditugunean ere, izenaren eskuinetara ager daiteke modifikatzailea (*marinelei abisua* adibidez).

koa argiro erakuts daiteke, gure ustez, osagaiak *-le/-tzaile* egitura barrutik ateratzeko dituzten murriztapenak.

4. Ondorioak

Lan honetan erakutsi dugunez, *-le/-tzaile* ez da beti eta salbuespenik gabe, eratorpenezko atzizkia. Euskararen hizkera batzuetan, inflexiozko atzizkia dela uste dugu, eta horrek bidea ematen dio askotariko osagaiak hartzeko bere barruan. Egitura horren agerraldiak ikusirik, euskaraz ezagunak diren partizipio predikatuetarako erabili den hipotesi bera erabil liteke beharbada baita gure inflexiozko *-le/-tzaile* egiturarako ere. Partizipio egitura hauetan, operatzaile isilen bitartez sortzen da predikazioa. Operatzaile isil horrek A'-uztarten du egituran hutsik dagoen subjektu gunea. Antzeko operatzaile isilak proposatu izan dira erlatiboazko perpausetarako eta horrek ere eman lezake bi egituren arteko antzekotasun formalazaltzeko bidea.

Aipamenak

- Albizu, P., 2001, «Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan», in B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On case and agreement*. Bilbo: UPV/EHU: 49-63.
- Ettxepare, R. eta B. Oihartzabal, 2008a, «Dative structures in Standard and North-Eastern Basque», *Licensing conditions at the interface. International Encounter at the Summer Courses of the University of the Basque Country*. XXVI Uda-ikastaroak, Donostia-San Sebastián, ekainak 23-24.
- eta —, 2008b, «Locational datives and dative agreement in the Eastern Dialects of Basque», *European Dialect Syntax Meeting III*, Venezia, 2008 irailak 18-21.
- eta —, 2008c, «Leku-datiboa ekialdeko zenbait hizkeratan», *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskararen eta euskal testugintzan*, IKER, abenduaren 12-13an.
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Berrarg. Euskaltzaindia. 1991].
- Fernández, B. eta J. Ortiz de Urbina, 2010, *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.
- eta J. Landa, 2009, «Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsintax», *Lapurdum* [inprimatzen].
- , J. Ortiz de Urbina eta J. Landa, 2009, «Datibo komunztaduraren gakoez», in R. Ettxepare, R. Gómez eta J. A. Lakarra (arg.), *Beñat Oyharçabali gorazarre*. ASJU 43: 1-2, 352-380.
- eta I. Sarasola, 2010, «*Marinelei abisua*: izen ondoko datibo sintagmak izenburuen sintaxian», *Lapurdum*. [inprimatzen]
- Gràcia, Ll., M.^a T. Cabré, S. Varela, M. Azkarate *et al.*, 2000, *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Makazaga, J. M., 1999, «*-kiko* atzizki konposatuaz», in J. C. Odriozola (arg.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua: 15-54.
- Oihartzabal, B., 2010, «Perpaus erlatibo jokatugetabeak». Euskaltzaindiaren Gramatika Batordearen barne-txostena.

- Ortiz de Urbina, J. eta M. Uribechebarria, 1991, «Participial Predication in Basque», in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, «ASJU-ren Gehigarriak», Donostia-San Sebastián: UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia: II, 993-1012.
- Pagola, R. M., 1992-1999, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Pérez Gaztelu, E., I. Zabala eta Ll. Gràcia (arg.), 2004, *Las fronteras de la composición en lenguas romances y en vasco*. Donostia-San Sebastián: Deustuko Unibertsitatea.
- Rijk, R. P. G. de, 1988, «Basque Syntax and Universal Grammar». *II World Basque Congress. Conference on the Basque Language*, I. 69-88. [Berrarg.: Rijk, Rudolf P. G. de, 1988, *De Lingua Vasconum: Selected Writtings*. ASJUren Gehigarriak XLIII. UPV/EHU: 251-270].
- , 1993, «Basque Hospitality and the suffix *-ko*», in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins: 145-162. [Berrarg.: Rijk, Rudolf P. G. de, 1988, *De Lingua Vasconum: Selected Writtings*. ASJUren Gehigarriak XLIII. UPV/EHU: 377-390].
- Zabala, I., 1999, «Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen segidak», in J. C. Odriozola (arg.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua: 107-158.
- Zanuttini, R., 1996, «On the Relevance of Tense for Sentential Negation», in A. Belletti & L. Rizzi (arg.), *Parameters and Functional Heads. Essays in Comparative Syntax*. Oxford, Oxford U. P.: 181-207.

Corpuseko aipamen bibliografikoak

OEHN diren aipamenak

Arbill, Arch [*Fab*], ArmUs, Ax, Ber *Trat*, BOEL, Casve *SGrazi*, Dv [*LEd*], Elsb *LehE*, Etch, EZ [*Eliç*, *Man*, *Noel*], FPrS, *GAlm*, Gatxitegi *Laborantza*, *GaztAlm*, Gy, Harb, *Herr*, HU *Zez*, Ip [*Hil*], Iratz, JE [*EuskG*, *Med*], Larre [*ArtzainE*], Larz, Lç, Leon, Lf, Mde, Mst, Peillen *Zub*, SoEg *Beñat*, Tt *Arima*, Xarlem, Zby, *ZIZ*.

OEHN ez diren aipamenak

- Agüerga: AGÜERGARAY, Arnaud (Muskildi 1943-). *Allande d'Oihenart*. Muskildi, 1985.
- Arrossagaray: ARROSSAGARAY, Joanes (Aintzile 1949-1998). *Bihotz barneko solasak* (arg.: Antonio Zavala). Donostia, 2007.
- BOEs: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: zuberera* (2 lib.). Bilbo, 1999.
- Casve
- *Aroa: Aroa*. Maule, 2001.
- *Eliza: Elizabakide ekumenikoa*. Maule, 1965.
- *Pette: Pette Basabürü*. Bilbo, 1980.
- Dagorret: DAGORRET, Beñat (Makea 1927-). *Beilaria zertan da gaua?* Bernard Darricau (itz.: Beñat Dagorret). Donostia, 2000.
- Davant: DAVANT, Jean Louis (Ürrüxtoi-Larrabile 1935-).
- *Abadia: Abadia Urrustoi*. Durango, 1986.
- *Aberri: Aberri eta klase burruka euskal mugimenduan*. Baiona, 1977.
- *Aguirre: Aguirre presidenta*. Arrokiaga, 1995.

- *Hauta: Idazlan hautatuak*. Donostia, 2004.
- *ZubLit: Zuberoako literaturaz*. Bilbo, 2008.
- Diras: DIRASSAR, Janbattitt (Hazparne 1937-).
- *Mina: Bihotzeko Mina*. Donostia, 1997.
- Dupac: DUPAC, Mikel (Baiona 1944-).
- *Añarroa: Añarroa*. Baiona, 1986.
- Dv
- *Telemake: Telemake Ulizen semearen gertakuntzak* (arg.: Elizabet Kruzeta). Donostia, 1996.
- EskAlm: Eskualdunaren Almanaka*. Baiona, 1910-1925.
- ETXAM: ETXAMENDI, Eñaut (Ezterenzubi 1935-).
- *Gilen: Gilentegiko Gilen*. Donostia, 1987).
- *Laminak: Laminak* (1965), in *Idazlanen bilduma II*. Baiona, 2009.
- *Urtzo: Urtzo-lilia* (1981), in *Idazlanen bilduma III*. Baiona, 2010.
- Etxehandi: *Elizen Arteko Biblia lapurtarrez* (itz.: Martzel Etxehandi). Ahurti, 2007.
- GilBera: GIL BERA, Eduardo (Tutera 1957-).
- *Montai: Entseguak I*, Michel Montaigne (itz.: Eduardo Gil Bera; zuz.: Jean Baptiste Orpustan). Bilbo, 1992.
- HU
- *Gontzetarik: Gontzetarik jalgiaziak* (arg.: Iñaki Camino). Donostia, 1994.
- *Kazeta: Ni kazeta egilea naiz* (arg.: Xabier Alzibar). Bilbo, 2004.
- HUrru: HIRIART-URRUTY, Jean (Hazparne 1927-1990).
- *Izar: Izar alde*. Zarautz, 1989.
- Iratz
- *Afrika: Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean*. Baiona, 1991.
- IrriTeatr: Zuberoako irri-teatroa* (arg.: Patri Urkizu). Baigorri, 1998.
- Itzaina: ITZAINA, Mixel (Aldude 1933-).
- *Labe: Mixel Labéguerie: kantu berritzaile eta politika gizona*. Donostia, 1999.
- JE
- *KazetA: Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III. Kazetaritza (A)* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1988.
- *KazetB: Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. IV. Kazetaritza (B)* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1992.
- JPMendiburu: MENDIBURU, Jean Pierre (Heleta 1948-). *Ene bertsuen feiria*. Donostia, 2007.
- Karrika: KARRIKA, Beñat (Armendaritze 1918-). *Armendaritze haur begiez*. Tolosa, 1990.
- Larz
- *Idaz: Piarres Larzabalen idazlanak (7 lib.)* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1991-1998.
- *Mendi: Nere mendixkatik*. Donibane Lohizune, 1978.
- Leon
- *Alegia: Alegia deus ez* (arg.: Elena Touyarou-Phagaburu). Donostia, 1993.
- Lf
- *Eibera: Historio-misterio edo eiberazainaren ipui hautatuak* (arg.: Jean Baptiste Orpustan). Baiona-Donostia, 1990.
- *Hauta: Kazetari-lan hautatuak* (arg.: Pako Sudupe). Donostia, 2002.

- *Idek: Idek eta zabal gogo-bihotzak*. Baiona, 1971.
- *Nafar: Nafar lapurtar idazle aipatuena*. Donostia, 2001.
- Luku: LUKU, Antton (San Frantzisko 1959-)
- *Iban: Antzerkiaren azterketa*, in *Don Iban eta Ibai Gorri*, Gillaume Irigoien. Donostia, 1991.
- Mde
- *Artikuluak: Obra osoa I* (arg.: Luis Haranburu-Altuna). Alegia, 1999.
- Mendiage: MENDIAGE, Jose (Aldude 1845-Montevideo 1937). *Jose Mendiage (1845-1937) Haren bizia eta haren kantuak* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1992.
- Orpus: ORPUSTAN, Jean Baptiste (Ortzaize 1934-).
- *Flaub: Maitasunaren ikasten*. Gustave Flaubert (itz.: Jean Baptiste Orpustan). Baiona, 2006.
- Panpilli: ZUBIRIA, Jean Pierre («Panpilli») (Senpere 1902-Baiona 1992). *Panpilli Senpertarra bertso kantari*. Baiona, 1992.
- Phantzart: Phantzart*. Jakes Oihenarte (arg.: Iñaki Mozos). Iruñea, 1982.
- Peillen
- *Biziaren: Biziaren hiztegiak*. Bilbo, 2008.
- *Itzal: Itzal gorria*. Zarautz, 1972.
- SoEg
- *ESines: Ene sinestea*. Zarautz, 1978.
- Soube: SOUBELET, Dominique (Hazparne 1897-Hiriburu 1970).
- *Petaïn: Petaïn*. Toulouse, 1941.
- *Fatima: Fatimako Ama Birjina*. Bordeaux, 1945.
- *Jesus: Jesus*. Vienne, 1969.
- Trounday: TROUNDAY, Piarres (Ortzaize ????-).
- *Balitzane: Balitzane*. Baiona, 2008.
- Xanpun: SEIN, Manuel («Xanpun») (Senpere 1928-Donibane Lohizune 2002). *Xanpun bertsoaria* (arg.: Joxemari Iriondo). Donostia, 2006.
- XArb: ARBELBIDE, Xipri (Heleta 1934-).
- *Xuri: Xuri-gorriak*. Donostia, 2007.
- Xarri: XARRITON, Piarres (Hazparne 1921-).
- XIr: IRIGARAY, Xan (????-).
- *Amazon: Amazonen deia*. Baigorri, 1992.
- *Itzala: Itzala barnean*. Baiona, 1992.
- Zby
- *ArtzainBeltza: Artzain beltzaren neurtitzak* (arg.: Henri Duhau). Bilbo, 2008.

-le/-tzaile inflexiozko atzizkiaz

—corpusa—

Corpuseko erreferentzia bibliografikoak

OEH-n diren erreferentziak

Arbill, Arch [*Fab*], *ArmUs*, Ax, Ber *Trat*, BOEl, Casve *SGrazi*, Dv [*LEd*], Elsb *LebE*, Etch, EZ [*Eliç*, *Man*, *Noel*], FPrS, *GAlm*, Gatzitegi *Laborantza*, *GaztAlm*, Gy, Harb, *Herr*, HU *Zez*,

Ip [*Hil*], Iratz, JE [*EuskG*, *Med*], Larre [*ArtzainE*], Larz, Lç, Leon, Lf, Mde, Mst, Peillen *Zub*, SoEg *Beñat*, Tt *Arima*, Xarlem, Zby, *ZIZ*.

OEH-n ez diren erreferentziak

Aguerga: AGUERGARAY, Arnaud (Muskildi 1943-). *Allande d'Oihenart*. Muskildi, 1985.

Arrossagaray: ARROSSAGARAY, Joanes (Aintzile 1949-1998). *Bihotz barneko solasak* (arg.: Antonio Zavalá). Donostia, 2007.

BOEs: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: zuberera* (2 lib.). Bilbo, 1999.

Casve

— *Aroa: Aroa*. Maule, 2001.

— *Eliza: Elizabakide ekumenikoa*. Maule, 1965.

— *Pette: Pette Basabürü*. Bilbo, 1980.

Dagorret: DAGORRET, Beñat (Makea 1927-). *Beilaria zertan da gaua?* Bernard Darricau (itz.: Beñat Dagorret). Donostia, 2000.

Davant: DAVANT, Jean Louis (Ürrüxtoi-Larabile 1935-).

— *Abadia: Abadia Urrustoi*. Durango, 1986.

— *Aberri: Aberri eta klase burruka euskal mugimenduan*. Baiona, 1977.

— *Aguirre: Aguirre presidenta*. Arrokiaga, 1995.

— *Hauta: Idazlan hautatuak*. Donostia, 2004.

— *ZubLit: Zuberoako literaturaz*. Bilbo, 2008.

Diras: DIRASSAR, Janbattitt (Hazparne 1937-).

— *Mina: Bihotzeko Mina*. Donostia, 1997.

Dupac: DUPAC, Mikel (Baiona 1944-).

— *Añarroa: Añarroa*. Baiona, 1986.

Dv

— *Telemake: Telemake Ulizen semearen gertakuntzak* (arg.: Elizabet Kruzeta). Donostia, 1996.

EskAlman: Eskualdunaren Almanaka. Baiona, 1910-1925.

Ettxam: ETXAMENDI, Eñaut (Ezterenzubi 1935-).

— *Gilen: Gilentegiko Gilen*. Donostia, 1987).

— *Laminak: Laminak* (1965), in *Idazlanen bilduma II*. Baiona, 2009.

— *Urtzo: Urtzo-lilia* (1981), in *Idazlanen bilduma III*. Baiona, 2010.

Ettxehandi: *Elizen Arteko Biblia lapurtarrez* (itz.: Martzel Ettxehandi). Ahurti, 2007.

GilBera: GIL BERA, Eduardo (Tutera 1957-).

— *Montai: Entseguak I*, Michel Montaigne (itz.: Eduardo Gil Bera; zuz.: Jean Baptiste Orpustan). Bilbo, 1992.

HU

— *Gontzetarik: Gontzetarik jalgiaraziak* (arg.: Iñaki Camino). Donostia, 1994.

— *Kazeta: Ni kazeta egilea naiz* (arg.: Xabier Altzibar). Bilbo, 2004.

HUrru: HIRIART-URRUTY, Jean (Hazparne 1927-1990).

— *Izar: Izar alde*. Zarautz, 1989.

Iratz

— *Afrika: Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean*. Baiona, 1991.

IrriTeatr: Zuberoako irri-teatroa (arg.: Patri Urkizu). Baigorri, 1998.

Itzaina: ITZAINA, Mixel (Aldude 1933-).

— *Labe: Mixel Labéguerie: kantu berritzaile eta politika gizona*. Donostia, 1999.

JE

— *KazetA: Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III. Kazetaritza (A)* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1988.

— *KazetB: Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. IV. Kazetaritza (B)* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1992.

JPMendiburu: MENDIBURU, Jean Pierre (Heleta 1948-). *Ene bertsuen feiria*. Donostia, 2007.

Karrika: KARRIKA, Beñat (Armendaritze 1918-). *Armendaritze haur begiez*. Tolosa, 1990.

Larz

— *Idaz: Piarres Larzabalen idazlanak (7 lib.)* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1991-1998.

— *Mendi: Nere mendixkatik*. Donibane Lohizune, 1978.

Leon

— *Alegia: Alegia deus ez* (arg.: Elena Touyarou-Phagaburu). Donostia, 1993.

Lf

— *Eihera: Historio-misterio edo eiberazainaren ipui hautatuak* (arg.: Jean Baptiste Orpustan). Baiona-Donostia, 1990.

— *Hauta: Kazetari-lan hautatuak* (arg.: Pako Sudupe). Donostia, 2002.

— *Idek: Idek eta zabal gogo-bihotzak*. Baiona, 1971.

— *Nafar: Nafar lapurtar idazle aipatuena*. Donostia, 2001.

Luku: LUKU, Antton (San Frantzisko 1959-)

— *Iban: Antzerkiaren azterketa*, in *Don Iban eta Ibai Gorri*, Gillaume Irigoien. Donostia, 1991.

Mde

— *Artikuluak: Obra osoa I* (arg.: Luis Haranburu-Altuna). Alegia, 1999.

Mendiague: MENDIAGUE, Jose (Aldude 1845-Montevideo 1937). *Jose Mendiague (1845-1937) Haren bizia eta haren kantauak* (arg.: Piarres Xarriton). Donostia, 1992.

Orpus: ORPUSTAN, Jean Baptiste (Ortzaize 1934-).

— *Flaub: Maitasunaren ikasten*. Gustave Flaubert (itz.: Jean Baptiste Orpustan). Baiona, 2006.

Panpilli: ZUBIRIA, Jean Pierre («Panpilli») (Senpere 1902-Baiona 1992). *Panpilli Senpertia bertso kantari*. Baiona, 1992.

Phantzart: Phantzart. Jakes Oihenarte (arg.: Iñaki Mozos). Iruñea, 1982.

Peillen

— *Biziaren: Biziaren hiztegiak*. Bilbo, 2008.

— *Itzal: Itzal gorria*. Zarautz, 1972.

SoEg

— *ESines: Ene sinestea*. Zarautz, 1978.

Soube: SOUBELET, Dominique (Hazparne 1897-Hiriburu 1970).

— *Petaïn: Petaïn*. Toulouse, 1941.

— *Fatima: Fatimako Ama Birjina*. Bordeaux, 1945.

— *Jesus: Jesus*. Vienne, 1969.

Trounday: TROUNDAY, Piarres (Ortzaize ???-).

— *Balitzane: Balitzane*. Baiona, 2008.

Xanpun: SEIN, Manuel («Xanpun») (Senpere 1928-Donibane Lohizune 2002). *Xanpun bertsularia* (arg.: Joxemari Iriondo). Donostia, 2006.

XArb: ARBELBIDE, Xipri (Heleta 1934-).

— *Xuri: Xuri-gorriak*. Donostia, 2007.

Xarri: XARRITON, Piarres (Hazparne 1921-).

XIr: IRIGARAY, Xan (???-).

— *Amazon: Amazonen deia*. Baigorri, 1992.

— *Itzala: Itzala barnean*. Baiona, 1992.

Zby

— *ArtzainBeltza: Artzain beltzaren neurritzak* (arg.: Henri Duhau). Bilbo, 2008.

Lç

Eta ziraden Maria Magdalena eta Ioana eta Maria Iakesen ama, eta berze hekin ziradenak, *gauza hauen Apostoluei erraileak*. (Lç Lc 24, 10)

Ezen Demetrius deitzen zen zilhargile, *Dianaren zilharrezko tenpletxogile* batek, anhitz irabaz eraziten zerauen ofiziokoei: (Lç Act 19, 24)

Ezen *airera minzazale* izanen zarete. (Lç 1 Cor 14, 9)

Bada Titez den bezenbatean ene lagun da eta *zuek baithan aiutazale*: eta gure anaiez den bezenbatean, Elizen enbaxadore dirade eta Kristen gloria. (Lç 2 Cor 8, 23)

Baina zareten elkargana benigno, miserikordioso eta *elkarri barkazale*, Iainkoak Kristez barkatu ukan drauzuen bezala. (Lç Eph 4, 32)

Baina behar dik Ipizpikuak izan irreprensible, emazte bakoitz baten senhar, bijilant, sobre, modest, *estranjereren ostatuz gogotik rezebizale*, irakasteko karazko: (Lç 1 Tim 3, 2)

Eta gehiago, *alfer egoile* ere diradelarik ikasten die etxez etxe ebilten: eta eztituk solament *alfer egoile*, baina edasle ere, eta kurioso, behar eztiraden gauzez dadasatelarik. (Lç 1 Tim 5, 13)

Traidore, temerario, hantuak, *Iainkoari baino boluptatei hobe erizle*. (Lç 2 Tim 3, 4)

Baina estranjereren *ostatuz gogotik rezebizale*, onen onhetsle, zuhur, iusto, saindu, moderatu: (Lç Tit 1, 8)

Ezen baduk anhitz ranjea ezin daitenik eta *banoki minzazalerik*, eta adimenduen seduzizalerik, prinzipalki Zirkonzisionetik diradenak: haei ahoa bozatu behar ziaiek: (Lç Tit 1, 10)

Zuhur izaten, xahu, *etxean egoile*, on, bere senharren suiet: Iainkoaren hitza blasfema ezta dinzat. (Lç Tit 2, 5)

Ezen gu ere noizpait adimendu gabe gentuan, desobedient, abusatua, anhitz moldetako desirak eta boluptateak zerbitzatzen gentuela, malitiatan eta inbidiatan bizi ginela, gaitzetsiak ginela: eta *elkarri gaitz erizle*. (Lç Tit 3, 3)

Zereneta *denboraren arauetz irakatsle* izan behar zinetelarik, berriz irakatsi behar baitzarete zer diraden Iainkoaren hitzetako lehen hatseko elementak: eta halako egin zarete non ezne behar baituzue, eta ez bianda zerraturik. (Lç He 5, 12)

Baina baldin personen akzeptationerik baduzue, bekatu egiten duzue, eta reprehenditzen zarete *Legeaz transgredizale* bezala. (Lç Iac 2, 9)

Eta finalki guziak zareten konsentimendu batetako eta konpasionen batetako, *fraternalki onhetsle* zaretelarik miserikordioso, gratio: (Lç 1 Petr 3, 8)

Zareten *elkarren ostatuz rezebizale*, murmuratationerik gabe. (Lç 1 Petr 4, 9)

Simeon, *beha egoilea*. (Lç Decl Mm 4v)

Zorobabel, *konfusioneari kontrastazalea*. (Lç Decl Mm 4v)

Ezpatatz hiltzalea, ezpatatz hiltzeko. (Lç Decl ĩ 8v)

Ber Trat

Sakrifizio ofreziea, da Iaungoikoari zeinbait hark kriaturikako gauz ofreziea ezaguzen dugula Iaunau dela Iaungoiko egiaskoa, eta ala guzien kriazalea, eta *guziei ondasun eginzalea* zeñenganik baititugu ondasun guziak, eta nola Iaunau baita solamente Iaungoikoa berdaderoa, eta egiaskoa, eta ez berzerik ala Iaun hori bear zaio ofrezitu sakrifizioa, eta ez yori berzeri. (Ber Trat 16v)

Eskatus gero Meza enzuten duenak barkazio bere bekatues, Sazerdotea igan Aldarera asizen du Meza, horduan da ongi Meza enzuten duena asi dedin alabazen duela Iaungoikoa denarengatik, zeren baita miserikordias, eta ondasunes beterik dagon Iauna *guziei ondasun egillea*, eta zeren barkatu baitizkio bekatuak, eta nai izandu baitu, aurkin dedin ain okasio onean aren dibina Majestadearen zeruizazeko, eta agradazeko, eta atrazeko probetxu auniz beretako, eta berze Kristio fielendako. (Ber *Trat* 40v)

Iaungoiko egiaskoa, sakrifizio sandua Meza erralleak ofrezizen drauzuna, baita Iesu Kristo gure Iaunaren gorpuz eta aren odol sandua: nik neure partetik areki batean ofrezizen drauzut merejitu dizkigun ondasun guzieki, konfesazen dudala zu zaradela Iaungoiko berdaderoa, guzien Iauna, eta *guziei ondasun egillea*. (Ber *Trat* 73v)

EZ Man

O Iesus Krist *solas saindu haukin formatzaillea* / eta lege hain sainduen *Zerutik ekharlea*, / meditatzen tudanean hain errefau iustuak, / harritzen naiz zeren diren hain on eta sainduak. (EZ *Man* I 34)

Ungi ethorri bihotz simple malezia gabeak / eta *munduko plazereren oñez zapatzailleak!* (EZ *Man* I 87)

Madarika dadillala penen asmatzaillea / eta *bekhatuak hunen latzki punitzailleak!* (EZ *Man* I 101)

Zure borondatea da amudioz bethea, / eta *gizonei ontasun komunikatzaillea*. (EZ *Man* II 15)

Huneraño izatu naiz promesen hautzaillea, / bañan izanen naiz orain *obrez konplitzaillea*. (EZ *Man* II 20)

O Iongoiko *argiaren izpiz banatzaillea*, / ene othoitzaren arren, zaren entzuntzaillea. (EZ *Man* II 36)

Ezen ez zu ofensatu neure kreatorzaillea, / eta *behar guztietan onez estaltzaillea*. (EZ *Man* II 70)

Iainko iborziriari oihu eragillea, / othoi urrikal bekizu ene auhen tristea. (EZ *Man* II 111)

O Iaun, *Prinzeak ozpiñaz lotsarazitaillea*, / nondik zure handi baita ezagun podorea. (EZ *Man* II 111)

O Iongoiko *hegastinen plumez bestitzaillea*, / alde batetik berzera pasatzeko airea. (EZ *Man* II 138)

Bañan *Itsasoen zaren legez baketzaillea*, / othoi holei emotezu gure gatik bakea. (EZ *Man* II 144)

O Iongoiko *haizeari bide eragillea*, / arren tormentari ather diozozu kolpea. (EZ *Man* II 147)

Saindu promesen obraz konplitzaillea, ardiats diezadazu grazia halaber neure hitzen konplizeko. (EZ *Man* II 182)

Zeruen zuziz bistatzaillea. (EZ *Man* II 190)

Bakea ekhartzaillea. (EZ *Man* II 194)

Semearen guretzat ertxatzaillea. (EZ *Man* II 196)

EZ Eliç

O Iongoiko *penetarik / gure libratzaillea*, / presenteko eriairen / ikhuzazu nekea. (EZ *Eliç* 77)

Aizen beraz prudent eta / *zuzen baliatzaille*, / nekeetan borthiz eta / atseginen neurtzaille.
(EZ *Eliç* 101)

Zeren zu baitzare ene / begiraille ernea, / zu *kalte guztietarik* / ene libratzaillea. (EZ
Eliç 180)

Bidalduko zerokula / geure salbatzaillea, / eta *etsaien artetik* / geure libratzaillea. (EZ
Eliç 201)

O Iongoiko *munduari* / *fabore egillea*, / irakats diezadazu / arren zeure legea. (EZ *Eliç* 223)

EZ Noel

O Ierusalengo hiri / guttiz esker gabea, / eta *Profeta sainduen* / *kruelki hiltzaillea*. (EZ *Noel*
103)

O Iaunaren iltzearen / orhoitzapen argia, / orhe gozo eta ezti, / *emaillea bizia*. (EZ
Noel 162)

Hala lehen zinelarik / *urean arrantzaille*, / gizon basatuen egin / zintuen atzemaille. (EZ
Noel 193)

Arren, bada, *zeure hitzen* / *obretan emaillea*: / ardiats diezadazu / halako faborea. (EZ
Noel 195)

Harb

Zu guzia miserikordiazkoa eta halatan *bekhatorei barkatzaillea*, ordea, gure Iainko salbatzai-
llea, hau guzia ezta zu zarena zaren bezala ezagutzea, baina zuk gu ezagutzen gaitutzu ga-
renok garen bezala; hau ezta zuk zeure burua ezagutzen duzun bezala ezagutzea, baina
zuk gu ezagutzen gaitutzu ezagutzeko garen guzia; hau gatik midiku iakinsunak bezala
erremedioak ordena diatzadatzu; (Harb 142)

Ene fedea, ene fedeaz, ene egia eta hunelakoak errana gatik eztira iuramentu, baldin Iain-
koaren fedea edo Iainkoaren egia *hala erraileak* aditzen ezpadu edo iuramentutzat ezpa-
dadutza. (Harb 165)

Gure arimak, gure anaia lagunenak eta *guri ungi egilenak* zuk sekulako damnazinotik begira-
tzea gatik, othoi. (Harb 304)

Ax

Zeren ezpaitu *halakoei prestatzailleak*, koberatzeko perilik. (Ax 33 (V 71))

Beharrari emaillea, ezta beharrean iarriko, emaille eztena, azkenean behar izanen da.
(Ax 232 (V 313))

Hala dira bada *beharrei emailleak* ere. (Ax 233 (V 314))

Orduan ihardetsi zioen erregek, hala *erraile hari*: Bada arrazoin horren beronengatik, eztut
ikhusi nahi. (Ax 394 (V 507))

O Pr

Badut ere herabe / senarraren hilzale / *horri ioaitera iorrale*, / ezin naoke jan gabe. (O *Pr* 63)

Tt Arima

Bada *amoinaren pobriari refusazalia* linkoak punitzen du, zeren ezpaitu nahi enzun, baita pena handi bat; (*Tt Arima* 93)

Amoina, baita prinzesa eder bat eta handi bat, zonbat indar eta bertute dian eta zonbat linkoak maite dutian amoina egiliak eta hastio *amoinaren beharrari refusazaliak*, bat edo bi istorien moienez ikusiko dugu, arima debota eta penitenta. (*Tt Arima* 117)

FPrS

Eliza honi honkigiliak, Jinkoak paka ditzan; (FPrS 19)

Eta parka itzagützü gure bekatiak, hala nola gük parkatzen baitütügu *guri ogen egiler*; (FPrS 21)

Eliza gizonen zonbat nahi arhinzki xaflazaliak. (FPrS 25)

Seroreki aragizko bekatiaren egiliak. (FPrS 25)

Ezkontze ixil egiliak bere lagüneki. (FPrS 26)

Haurren urthia beno lehen *bereki eratzaliak*, ithotzen badira. (FPrS 26)

Elizak, eliza gizonak, edo haiek nahi dütien arrandatek *bere honak goza eztitzen gibelzaliak*, eta haien züzenen gordazaliak bortxaz, mehatxuz edo nola nahi. (FPrS 26)

Arbill

Liburuek gauza bera guziei erraren diote, baiñan estute guzietan inpresione bera egiten zeren ni bainaiz arimaren barnean egiazen doktora bihotzaren fundatzailea, pensamenduen penetratzailea, akzione eta obren formatzailea eta *ene ontasunen gizonen plazeraren arabera partitzailea*. (Arbill 112)

Hura da egiazen nausia instrukzioarean erregela, bihotzeko argia; *kaltetan konsolatzailea*, tristeziaren etsaia, beldurtasunaren kasatzailea, debozioarean entretentzailea, eta nigar sainduen ama. (Arbill 155)

O ontasun miragarria! o humilitate ezin konprende deitekena! zu ene kreatzaile, ene Jaun, eta ene Iainkoa, *Ispiritu guziei bizitze emaillea*, ethor zaitezen arima pobre batetarat, eta zure Iainkotasun eta gizontasunaren aberatstasun guziak enplega dezatzun, hura ontasunez bere beharrean betetzeko. (Arbill 186)

Mst

Egiazki pazient den gizon batek, heben Pürgatorio handi, eta balius bat igaraiten dü; nuiz ere, laiduen unhestiareki, haboro dolore beitü, besteren gaixtokeriaz, *eziez bere laido hartziaz*, zuñek, *berauri gaizki egilen*, Jinkua gogotik othoitzen beitü, eta bihotzetik faltak pharkatzen, zuñek pharkamentü esketzeko, berankeriarik ezpeitü egiten, zuñ ekharriago beita, bester dolü egitera, *eziez bere büriaren khexa erazitsera*, zuñ bere büriari bortxa egiten dialarik, iseiitzen beita, ezpitiaren nahiküntetara, aragiaren osoki erakhartera. (Mst I 24, 2)

Eztakidan eni mintza Moisa, edo beste zunbait profetetarik: bena zü lehenago mintza zakitzat, Jinko Jauna, profeta oren argizalia eta *inspirarzüen her emailia*; zeren zihaurk hurak gabe ezin hobeki jakintsützen ahal beinaizü; hek aldiz, zü gabe, ezpeitie profetitirik batere idokiren. (Mst III 2, 1)

- Ni niz *jente pherestier orori phakü emailia*, eta deboten ooren azkarki borogazalia. (Mst III 3, 3)
- Amuriua laster da, egiati, debot, ezti, eta maithagarri: hura azkar da, pazient, fidel, abisatü, *lüzaz iraille*, korajus, eta ez seküla berauren txerkhazale. (Mst III 5, 7)
- Amuriua orotarar so egile da, aphal da, eta xüxen: ezta laxü, *ez arhin, ez gaiza banuer gogua emaille*; sobre da kasto, fermo, phausüzko, eta zentzü orotan untsa begiratü. (Mst III 5, 7)
- Amuriua gehienen manü pian, eta *obedientzian egoile* da, berauri xar, eta mesperetxagarri da, Jinkuari debot, eta esker emaille, hartan bethi esparantxa eta konfidantxa ezarten dialarik; are gütienik Jinkua gozatzen dian thenporan: zeren ezpeita amuriuan bizitzerik dolore gabe. (Mst III 5, 7)
- Zunbait bere bürier gogua aphür emaille*, debozione soberak gal erazi ükhen dütü; zeren ahal ziroien beno haboro egin nahi ükhen beitie, izartü faltaz bere aphürtarzüna, eta nahiago izanez, lehenago jarraiki bere bihotzaren süyari, eziez arrazuaren jüjamentiari. (Mst III 7, 2)
- O reljiusen izatiaren mithilgua sakratia, zuñek gizona ezarten beitü aingürien pare, Jinkuaren apaisazale, *debrien lotsa erazizale*, eta arima fidel orori laidable. (Mst III 10, 6)
- Zer düzü bekhatore theia, *zuri meatsü egilen* kuntre erraiteko düzüna, hañbestetan Jinkua ofensatü, eta ifernia merexitü düzüna? (Mst III 13, 3)
- Bena zuñek ere mündia osoki mesperetxatzen beitie, eta iseiatzen beitera, Jinkuaren legiaren araur bizitzera, hek ezagützen die zelüko eztitarzün, egiazki *mündiari ihesi egiler* hitzeman izan dena, eta klarkiago ikhusten die, zuñen itxuski mündia herratzen den, eta zunbat gisaz inganatü izaten. (Mst III 20, 5)
- Izan zite *gogua emaille*, eta orazione erraile; eta gaiza orotan, zure büria ümilia ezazü. (Mst III 24, 2)
- Hartakoz *ezpiritüz zelialar so egile* aphür edireiten da, zeren aphürrek beitakie, bere bürien osoki berhezten, kreatüra, eta gaiza galdü izan behar dien hoietarik. (Mst III 31, 1)
- Bürdüñak huñetan beilütie bezala dütüzü, bere büriez phakü, eta hen maithazale direnak, nahiküntez, eta berri ikhasi beharrez betherik daudianak, *horrat hunat juailiak*, zuñek beretako garratz eztiren gaizak txerkhatzen beitütia, eta ez Jesü Kristenak, heldüren ezten gaiza ardüra bere beithan ajargatzen, eta konpostatzen dielarik. (Mst III 32, 1)
- Nahi nikezü hala lizan zureki, eta heldü zinen *zure büriaren ez maithazale* izateko phüntiala, eta ene, eta nik aitatako eman deizüdanaren boronthatiari xahüki egon zintian: ordian ezinago ene gogara zinanteke, eta zure bizitzia bakian, eta boztariuan igaren litezü. (Mst III 32, 2)
- Ni nüzü *gizonari jakitiaren erakuslia*, eta gizonak erakuts liruan beno, *enthegü hobiago baten txipier emailia*. (Mst III 43, 2)
- Librien languajia orentako orobat da; bena eztüzü oro bardin jakinsützen; zeren ni beiniz *egiaren barnian erakuslia*, bihotzaren ikherzalia, phensamentien enthelegazalia, *egitaten aitzina erazizalia*, bat bederari emaiten düdalarik, nihauri untsa üdüritzen zaitan bezala. (Mst III 43, 4)
- Ala beita hun, eta bakezko, bestetzaz ixilik egoitia, eta gaiza ooren bardinzki ez sinhestia, eta behin entzün ükhenaz, haboro ez nekez baizik minzatzia, aphürri bere büriaren ezagüt erazitzia; *berauren bihotzaren bethi ikhusle* izatia. (Mst III 45, 5)
- O grazia ezinago dohatsia, ezpiritüz praube, *berthütez aberats erazizalia*, eta hanitx hunez aberats denaren *bihotzez ümil izan erazizalia*. (Mst III 55, 5)

Hura düzü, ene azkartarzüna, hura *eni konseillü eta sokhorri emailia*. (Mst III 55, 5)
Egiazki fraide hun baten bizitzia khürütxe bat düzü, bena bai *pharadüsialat gidazalia* ere.
(Mst III 56, 5)

Phantzart

Ihesi juailer aldiz / enüzü hanitx jarreikiren, / zeren lotsatü dütüdala / orok beitie erranen.
(Phantzart 92)
Untsa kolpü gaistuena / düzü ene adiskidia, / *hunen zuri emailiak* / merexi likezü ürkhazia.
(Phantzart 107)
Haginak idokitzen dütüt / nihaur mankhatü gabe, / *eni behin idokizaliak* / nahi düke berriz
ere. (Phantzart 108)
Zeren diren hain / kalomnius haundiak, / eta *borogantxarik gabe* / *faltsüki aküsazaliak*.
(Phantzart 136)

Uretako semea

Ez nauzu ni traidore, ez ene leinian batere, Traidoreak badira ere, zure leinian dire, Eta su
zerori *beier ogi emaille*. (*Uretako semea*, XVIII-XIX, *Iker* 6, 1992, 148)

Etch

Pharkatzen dit etsaier *eni sofri-erazler*, / hala nula beiteie Jinkuak egin berer, / bena ezitit
pharkatüren eniak dütiener, / nun eta eztütien errendatzen ene haurrer, / berset horrez
mintzo niz küñat eta aurrider. (Etch 146)
Soñü egiteko behar dük *nuizetaik man hazalia*, / godaletaren hartzeko aldiz bethi prestik
(dük) eskia. (Etch 310)
Kharririkiri-borda edo «Sans quartier», / ai! zer lagüna hura *atzin lo egile!* (Etch 336)
Nik eman nikiozü hamar haz balitza kapable, / *hanko janarekin eta bestetan handizale*.
(Etch 364)
Maider, enün ebiltan ez ihuren ondun, / ez eta *huna jiler* nahi ihesi jun; / ust'ükhen balin-
badün hirik diel'en'ondun, / eztitzañala ützi ebiltera kanpun! (Etch 412)
Eretako barberaren zaldia, *Gaztalondon gaiaz ebiltzalia*, / hanko zerrallü petan itzalin gor-
dia, / eia nurat jüten zeian bürüzagia, / espadeikük erraiten hik zerbait egia, / primak
izanen dik aitarik gabe frütia. (Etch 426)
Montebidorat juailiak [izenburua da] (Etch 444)
Bi bersetan egitez nahi düt khuntatü / aphezek nula tien koblarik trunpatü, / khantore egi-
tez gütie manhatü, / nahiz *Montebidorat juailik* desgutatü, / eta prima hitzaman hobena-
nari phakü. (Etch 458)
Meza zinian hasi, / praubia zian ikhusi, / bi jaun handi hen artian, bere arropa txarreki, /
hantik jalki-erazlia igorri sabre bateki. (Etch 474)
Aphes hunak dirade, *abis hunik emaille* / mündüko hun plazer eta, uhures kasü gabe / karita-
tus esti prudént, ümil, unest eta sobre / munseignur berthüte hoies, zü doratürük zirade.
(Etch 604)
— Zelüko Jinko Jaunak badü pietate, / bere denbora dizü errota egile; / *ürgüllütsien bortxaz*
konberti erazle, / feit horrez orhit zite, maitia zü ere. (Etch 686)

Xarlem

Poiltroin ürgülütsia / pagano maradikatia / *finazia gaiztoz / mündü trunpazalia*. (Xarlem 414)

Zuri report egiliak, / eztira baizik emazte, / ene gaizki ezar erazteko / pensatü beitie. (Xarlem 729)

Kaniko eta Belxitina

Harekin, aldiz, Kaniko / *gerlari bühürzalia*, / zuiñ baratü izan beita / tristeki ble-satia. (*Kaniko eta Belxitina*, 1848, in IrriTeatr 177)

Ez deia heben ihur ere / *guri emaile*, deüs ere, / ez artho-muxi bat ere? (*Kaniko eta Belxitina*, 1848, in IrriTeatr 184)

Davant ZubLit

Fama gaitza bildü dü Ziberuan gainti, Santa Grazin bide, zübü, eliza-egile, bai eta ere orotan eta gisa hanitxez *orori honkiegile*. (Albert Constantin, 1854, in Davant ZubLit 81)

Dv Telemake

Oi feniziendarrak, *populu guziei haiñ laguntza emailleak*, bizia ardiets zozuete bi gizonci zoiñek zuen ontasunetik igurikitzen baitute. (Dv Telemake 107)

Gizon balakariak, lehiatukienik ethorriren zaizkitzunak zure urruntzera sartzetik behar-or-duetako atheka gaitzetan, hek berak izanen dira lehenbizikoak *gibelek erraile bihotz-eskas zarella*, baldinetaria errex edireiten badute behar-ordu hetan zure baratzea. (Dv Telemake 188)

Hori da estakuru bat bethi aintzinerat ematen dena lausengatzeko xahutzaile diren printzeak eta *beren populua zergapean lehertzaile* direnak. (Dv Telemake 207)

Dv LEd

Baldin obra berritu hau izaten bada zombait arima hiratuen gozagarri eta *bertze zombaiten onerat bihurrazale*, hura izanen da egilearen atsegin osoa eta zoriona. (Dv LEd VII)

Ai gorputz traidore, horrenbertze Jaunari damu, eta *hanbat kalte nerorriri erakharle eta eragile* izatu haizena; herorrek egina, herorrek paga dezakala. (Dv LEd 84)

Huna esku benedikatu behar *gaixoari amoina-emaile zirenak*. (Dv LEd 259)

Dv

Sela ere amatu zen Tubalkainez, zeina izan baitzen harotz eta burdinazko eta *letoinetzko obra orotan langile*. (Dv Gen 4, 22)

Eta zure ospearen handiaz lurreratu dituzu *zuri jazar-egileak*; igorri duzu zure hasarrea, eta iretsi ditu lastoa bezala. (Dv Ex 15, 7)

Idia atzotik eta herenegundik *adarrak emaillea* bada, eta haren nausiari hortaz lekhukotasun egin badiote eta harek idia ez hertsu, eta hunek hiltzen badu gizona edo emaztekoa: idia harrikatua izanen da, eta nausia hila. (Dv Ex 12, 29)

- Bainan nausiak balin bazakien idia *adarraz emaile* zela atzotik eta herenegundik, eta ez bazuen zaindu, bihur beza idia idiarentzat, eta hila osorik hartuko du. (Dv Ex 21, 36)
- Hunek ihardetsi zioen: Ez da hori *gudura berotzaileen* oihua, ez-eta ihes-igorleen deihadarrak: bainan kantarien boza entzuten dut nik. (Dv Ex 32, 18)
- Etzare populuaren izanen ez *aitzinetik jazarle*, ez *gibeletik jale*. Etzare oldartuko zure lagunaren biziari. Jauna ni naiz. (Dv Lev 19, 16)
- Zure solasez eta zure zuhurtziaz; eta ez nituen sinhesten *niri erraileak*, neroni ethorri arteo eta ene begiz ikhusi arteo; eta frogatu dut egiaren erdia ere etzarotedala erran. Zure zuhurtzia eta zure egintzak nik omenka adituak baino handiagoak dira. (Dv 3 Reg 10, 7)
- Bilha zaitezentzat zure arbasoen istorioetako liburuetan, eta aurkhituren duzu agerietan iskribatua, eta jakinen duzu nola hiri hori den hiri bihurri, *erregeei eta lekhuei bidegabe-egilea*, eta behialako egunetarik horren ganik ilkhi direla gerlak, aria hortaz hori izan baita ezeztatua. (Dv 1 Esdr, 4, 15)
- Gaixtagintzat goan bedi ene etsaia, gizatartzat *niri par egilea*. (Dv Job 27, 7)
- Aberatsak beharri manatzen dio, eta mailegatzaila, *maileguz emailearen* muthil da. (Dv Prov 12, 7)
- Zoroaren gogoeta bekhatu bat da, eta *gaizki-mintzatzailea* hatsgarri zaiote gizonei. (Dv Prov 24, 9)
- Ipharrak haizatzen ditu uriak, eta begitharte ilhunak *mihi gaizki-mintzatzailea*. (Dv Prov 25, 23)
- Odol-ixurtzailea eta *sarizaleari maula-egilea*, biak anaiak dira. (Dv Eccli 34, 27)
- Bere bihotz oroz laudatu du Jauna eta maithatu du Jainko, haren egile eta *etsaien kontra indar-emailea*. (Dv Eccli 47, 10)
- Eta nola izanen baita populua, hala apheza; nola muthila, hala nausia; nola neskatua, hala etxekandrea; nola eroslea, hala saltzailea; nola *maileguz hartzailea*, hala emailea; nola gibelerat galdatzen duena, hala zor duena. (Dv Is 24, 2)
- Bilhatuko ditutzu zuri bihurtzen zaizkitzun gizonak, eta ez ditutzu khausituko: ez balira bezala eta xahutuak bezala izanen dira *gizon zuri gerla egileak*; (Dv Is 41, 12)
- Zein zarete hatsarritik ethorkizunaren errailea, arren-eta ezagut dezagun? zein da hastapenetik mintzatu dena, erran diozguna: Egiaia zare? Bainan ez da zuetan berri-ekharlerik, ez *aitzinetik errailerik*, ez-eta nihork ez du zuen solasik aditu. (Dv Is 41, 26)
- Eta zure tokietan asko mendez mortu egon lekhuak etxez dira betheko, asko mendez ahan-tzirikako asentuak goitituren ditutzu, eta deithua izanen zare hesi-berritzailea, *bidexkei bake-bihurtzailea*. (Dv Is 58, 12)
- Seme bat izaten badu ohoina, odol-ixurlea eta *gaizki horietarik zerbaiten egilea*; (Dv Ez 18, 10)
- Hitz hau adi zazue, Samariako mendian zaretan behi gizenak, *beharrari bidegabe egileak*, eta erromesen oinkatzaileak, zuen nausiei erraten duzuenak: Ekhartzue eta edanen dugu. (Dv Am 4, 1)
- Eta erran nuen nik: Jauna, berek badakite ni nintzela, zure baithan sinhesten dutenen preso ezarle eta *sinagogetan zehatzaile*; (Dv Act 22, 19)
- Nork jazarriren diote Jainkoaren hautetsiei? Jainkoa denean *garbi atheratzaile*, (Dv Rom 8, 33)
- Sainduei beharretan laguntza egile, arrotzari lehor emaile*. (Dv Rom 7, 13)
- Aldiz, nik Jainkoa lekhuako deitzen dut ene arimaren gain, zuen guphidez ez naizela oraino Korinthorat ethorri; ez, zuen fedearen gainean nausitasunik erabiltzen dugulako ariaz,

- bainanbai *zuen bozkarioari eragile* baikare, fedean gogor zaudeztelakoz. (Dv 2 Cor 1, 23)
- Khar arara, *Jainkoaren Elizari jazarlea*; legetikako zuzen arara, notharik gabe bizi izan naitzena. (Dv Phil 3, 6)
- Nihork, tentatua denean, ez beza erran Jainkoak tentatzen duela; ezen Jainkoa ez da *gaizkirat hizitatzaille*; harek berriz, ez du nihor tentatzen. (Dv Iac 1, 13)
- Gathibu eramaile dena, bera gathibu goanen da; *ezpataz hiltzaille* dena, bera ezpatatik goan behar da. Hortan datza sailduen jasankortasuna eta fedea. (Dv Apoc 13, 10)

Dv in BOEI

- Badakizkit zure eginak, eta nekheak, eta egartzeak, eta nola gaixtaginak ezin jasan ditzazketzun, eta haztatu ditutzula apostolu *zirela erraileak*, hala etzirelarik, eta gezurretan atzeman ditutzu. (Dv —Apoc 2, 2— in BOEI 247)
- Huna non Satanen bilkhotik emanen darozkitzutan *Juduak direla erraile batzuek*, eta ez dira hala, bainan gezurrez dira mintzo. Huna non ethorraziko ditudan, eta khurtuko dira zure aitzinean, eta jakintsun eginen dira nola zaitudan maite. (Dv —Apoc 3, 9— in BOEI 249)
- Eta aditu nuen boz handi bat zeruan erraiten zuela: osatuak dira orai salbamendua, eta indarra, eta gure Jainkoaren erreinua, eta haren Kristoren boherea, zeren anbildua izan baita *gure anaiei iratxikitzaille gaixto* zena, eta gau eta egun hekiei Jainkoaren aitzinean gaizki iratxekitzen zuena. (Dv —Apoc 12, 10— in BOEI 259)

Arch Fab

- Urrari irri eghinerazlek*, / deizie buria aphalerazten. (Arch Fab 91)
- Guri phena emailiaren* / irabaztian / botza galdu ziren; / etxetik loa zeion joan, / etxeliar jin zeitzon phenak, / aiherrak eta loxeriak. (Arch Fab 229)
- Erreghen ondoan holako erroak / badira, zure kostuz erri / *eghinerazle nausiari*. (Arch Fab 237)

Arch in BOEs

- Jaunak erran zeion: Eztükezü, *ez*, hola; Kainen erhailia zaspitan haboroago zehatürrik dükezü. Eta Jaunak Kaini keñü bat ezarri zeron, *harekin büürü egilek* erho elezen. (Arch —Gen 4, 15— in BOEs 25)
- Erran zien: Arrabaskatüko tüt oro egin düdanetan gizonetik alimaletarano, *herrestaz ebilzaletarik* zelüko txorietarano; dolü beniz egin dütüdalakoz. (Arch —Gen 6, 7— in BOEs 28)
- Txori mota güzietarik bia; ihizi mota güzietarik bia; *herrestaz ebiltzale* mota güzietarik bia; mota güzietarik bia zurekila han sarthüren dira, bizi ahal ditien. (Arch —Gen 6, 20— in BOEs 28)
- Lür gañen igitzen zirenak oro, hegaldünak oro, alimaliak oro, ihiziak oro, *herrestaz ebilzaliak* oro; (Arch —Gen 7, 21— in BOEs 30)
- Lürrian bizi zirenak oro, gizonetik ihizietarano *herrestaz ebiltzaliak*, aidian hegaltariak bezala, oro arrabaskatürrik izan zien lürretik. Noe ber bera baratü zen, harekin Arkhan zirenekilan. (Arch —Gen 7, 23— in BOEs 30)

- Haren egongia hedatzen zen Hebilatik Sürerano, Ejiptoko aldialat soz daguenari *Asiriarat juailer*. Hil zen bere anaie güzien aitzinian. (Arch —Gen 25, 18— in BOEs 61)
- Hoiiek hola igaraiten zielarik Ejiptoko erregiaren bi shiek, *Edatera emailiak* eta Ogi-hauts-liak, hüts egin züten bere büruzagiari. (Arch —Gen 40, 1— in BOEs 94)
- Eta Faraunek hoiën kuntra khexatürük, aitzindari zirelakoz, bata *edatera emailen*, bestia aldiz ogi-hautslen (Arch —Gen 40, 2— in BOEs 94)
- Edatera emailiak* lehenik erran zeion bere ametsa: Ene aitzinian ikhusten nizün aihen undo bat, (Arch —Gen 40, 9— in BOEs 94)
- Hirur gerren egüna Faraunen sorth-egüna zen: eta bere aitzindarier apairü handi bat eman-
nik, apairü erditan ohartü zen Faraun *Edatera emailen* et Ogi hautslen büruzagiez. (Arch —Gen 40, 20— in BOEs 95)
- Bere dohatsütarzünian, *Edatera emailen* büruzagia Josefez etzen hatik orhitü. (Arch —Gen 40, 23— in BOEs 95)
- Ordian arren *edatera emailen* Büruzagiak Josefez ohartürük, erran zien: Ene ogena aithortzen düit. (Arch —Gen 41, 9— in BOEs 95)
- Eta berhezki jatera eman züten Josefi eta *Ejiptar hareki barazkalzaler*, berhezki ere haren anaier. (Arch —Gen 43, 32— in BOEs 101)
- Izan dadila Gan süge bideko eta süsker bidexkako, *zaldiaaren aztaletik usukizale*, urthuk dezan zamalzaña. (Arch —Gen 49, 17— in BOEs 110)
- Ogengiler igorriko tü zepho errauntsiak: *süia, sofria eta hegua barreiazalia* haien dirate. (Arch —Ps 10, 7— in BOEs 122)
- Aizuari gaitzik egin eztiëna, eta *lagünez laidorio errailer* behatü eztena. (Arch —Ps 14, 4— in BOEs 123)
- Ahua zabaltzen zizien ene iresteko *lehu arrobari orrua giliak* bezala. (Arch —Ps 21, 13— in BOEs 130)
- Ezti eta xüxen Jauna, hortakoz lege emanen deie *bidian gaizki-giler*. (Arch —Ps 24, 9— in BOEs 132)
- Jüj'itatzü, Jauna, eni ogen egiliak, armak khent zetzü *ene kuntra güdükazaler*. (Arch —Ps 34, 1— in BOEs 140)
- Dohatsü dira aholkazaliak eta *erien ikhustera juailiak*. (Arch —Ps tit 40— in BOEs 147)
- Gizoner plaser egilen* ezürak barreiatü tielakoz Jinkuak; ahalketü dirade Jinkuak mespere-
txatü dütielakoz. (Arch —Ps 52, 7— in BOEs 157)
- Jinkuari fida beita *hari ogen egiliak* galdüko direla dio. (Arch —Ps tit 54— in BOEs 158)
- Eneki gaiza hun jalia, eta *Jinkuaren etxera juailia*. (Arch —Ps 54, 15— in BOEs 158)
- Egün orotan zankho petan etsaiek erabili nizie, *eni gerla egiliak* hanitx beitrade. (Arch —Ps 55, 2— in BOEs 159)
- Laida dezela Jinkua zeliak eta lürrak, itxasuak, eta han *herrestaz dabilzanek* orok. (Arch —Ps 68, 39— in BOEs 171)
- Nahas eta gal ditiela *nitzaz gaizki errailiak*; ahalketz gorri ditiela ogen egin nahi deitadenak. (Arch —Ps 70, 14— in BOEs 172)
- Bidetik juaille güziek* arrogatü dizie, bere aizuen trüfagarritü düzü. (Arch —Ps 88, 40— in BOEs 190)
- Nuiz artio solaz tzarretan ariko dirade ogengile *gaizki mintzazaliak* oro? (Arch —Ps 93, 4— in BOEs 194)
- Ene etsaiari büürü egile* emozü gaxtua; eta esküñian egon dakiola debria. (Arch —Ps 108, 5— in BOEs 210)

Dohatsü ürrikaltar *jesailer pherestazalia*; bere solazen zühürki adelazalia! Behin ere ezpeita khordokatüko. (Arch —Ps 111, 5— in BOEs 212)

Jinkuaren legiari jarraikizalen dohatsütarzüna. (Arch —Ps tit 118— in BOEs 216)

Ezdeuskerier jarraiki zalek, ützen dizie ürrikia soltazalia. (Arch —Ion 2, 9— in BOEs 246)

Gy

Othoitz ere egizu, *zuri yazarlentzat*, / mundu huntako hau, ezta goxo hanbat. (Gy 38)

Nere ontasunaren laster ebatstaille / nihaur billhaka nintekte. (Gy 242)

Haris

Gaizki andiena guri egillea! (Haris 79)

Zby ArtzainBeltxa

Errana ere da iberrak eta eskualdunak izan direla egundainotik *itsasoz ibiltzaille*, munduko arebituenak. (Zby ArtzainBeltxa 212)

Turzan edo Urtzain horiek *itsasoz ibiltzaille* handi ziren. (Zby ArtzainBeltxa 213)

Elsb LeHE

Haren kartiereko bertze gizonek ez zuten heren makhurren xuxentzeko bakezko juge beharrik. Tristant zen heien egiazko jujea eta *zuzenki baketzaillea*. (Elsb LeHE 7)

Beraz, mila aldiz laudagarri da, Elizak, arimen kontserbatzeko egiten badu lurreko gobernamentuek egiten dutena gorputzen beiratzeko, bai eta gaztigatzen baditu, pena izpiritualez, arimen phozoindatzailleak, justiziak garrazki punitzen dituen bezala *gizoneri phozoin emaileak*. (Elsb LeHE 56)

Martin ez da sobera *berrear irakurtzalen* adiskide, eta nik ere erran nahi dut ez dezazketalala begien bistan sofri neskato gazeta irakurtzalesak eta gutiago oraino hetarik zenbait itsusi, izilka eta gordeka roman deitzen omen diren liburuak leitzen dituztenak. (Elsb LeHE 60)

Hasi zitzautan, beraz, Jaun Erretoraz mintzatzen, zioelarik, zela bethi khar handi batez bethea, pazienki gauza kiretsenen jasailea, xumeen, handien bezala, arraiki errezebitzaillea, eta *guziz erromeseri laguntza emailea*, eta *pobreroi amoina egilea*. (Elsb LeHE 73)

Izpuran, *harrobietarik harri atheratzaille* batzuez kanpo, jende gehienak baratze zainak eta laborariak dire. (Elsb LeHE 117)

Le Réveil Basque

Dio apezak erran duela peredikian badirela bi bandera, bat satanena, errepublikanoen aldeko botz emailena, bertzea Jesusena, bozkazaille xuriena; *justiziari apez salatzaile* diren girixtinoek bekatu egiten dutela; ez direla apezpikuari buruz baizik gaten ahal; ez duela axolarik, ez salatzez, ez inkestez; paga kentzen badakote, ohointza eginen dutela bigarren aldikotz; ez duela horren beharrik bizitzeko, futitzen dela. (*Le Réveil Basque*, 1889-11-24, in XArb Xuri 101)

Ip Hil

Emazte hura *debriaren huinpetan ezarlia*, Maria da, Salbazaliaren Ama. (*Ip Hil* 8)
 Gihaur bagina *zuri hersazaliak*, badakizügü ezkinatiela digno entzünik izateko, bena Jesükrist zure Seme Dibinoa eta gure Salbazalia, arartekari ezarririk egiten deitzügü gure galtoak; (*Ip Hil* 227)

Ip in BOEs

Badakit zat zure egitaiak, eta zure nekia eta zintarzüna, eta ezin ditzaketzüla egar gaistoak; eta ikhertü dütüzüla *apostolü direla errailiak*, ez-tirelarik; eta gezürti ediren dütüzü (*Ip —Apoc 2, 2— in BOEs* 285)

Hurak dira eki debrien izpiritiak *gaiza izigarri egiliak*, eta badoatza lür orotako erregetara, haien güdükara biltzera, Jinko ahalorotakoaren egüneko. (*Ip —Apoc 16, 14— in BOEs* 299)

Pharka itzagützü gure ogenak, gük *guri ogen egiler* pharkatzen dügün bezala. (*Ip in BOEs* 335)

Jinkuak pharka ditzagün gure bekhatiak hala nula gük pharkatzen beitügü *guri gaizki egiler*. (*Ip in BOEs* 335)

Egiaren kuntre ez mintzatzia; protsimu lagünaz ez arhinki gaizki jüjatzia, edo erraitia, eta *gaizki mintzazaler* ez behatzia. (*Ip in BOEs* 338)

Pharka itzagützü gure ogenak gük *guri ogenegiler* pharkatzen dügün bezala. (*Ip in BOEs* 365)

Jinkuk pharka ditzagün gure bekhatik halanula gük pharkatzen beitügü *guri gaizki egiler*. (*Ip BOEs* 365)

Egiaren kuntre ez mintzatzia; protsimu lagünaz ez arhinki gaizki jüjatzia edo erraitia, eta *gaizki mintzazaler* ez behatzia. (*Ip in BOEs* 367)

Mendiague

Sozietatia da denen gidaria, / *ttipi eta handier etsenplu emailia*. (Mendiague 100)

ArmUs

Eztira güta apür trüfatzen goratik eta thaigane *guri errailiak oraiko eskolatzia kitorik dela!*
 Eta gü bethi ariko gireia, gü egiten, eta bethi bai erraiten, holako zozokeriak, aho bethez, huhatzen deizkien kargülanter? (*ArmUs* 1904, 35)

Eta badirateke orano *errailiak* eta haien sinhetszale, gaisto beno astoagoak, *fraidek eta serorek etziela legarrik phakatzen!* (*ArmUs* 1904, 37)

Frantziako egitekoak hañ itxuski joaiten zirela ikhusten eta halere egiteko hoiens *gaizki joanerazler* photeria arra-emaiten! (*ArmUs* 1907, 97)

Ezda arren auzi kuntzentziati tinkkiago eta azkarkiago etxekara denik, gure denboretan berheziki, nuiz eta ez beitira ari haitatzen bakhoxki, gizun, intres galkorrek hobekixiago edo lazükixiago jarraikiren direnen, bena orano, politikan, Erlijionia joko edo begiratüko, fediarene argia hilen edo phiztürük etxekiko dien gizunen, fedia beita zozietateko kara hunaren üthürri bekhotxa, erran nahi beita, lürreko gaizen untsa juan erazlia, bai

eta gure esparantxa azkarren zola bakhotxa, erran nahi beita, *beste biziko irustarzüñaren guri ükhen erazlia*. (ArmUs 1907, 110)

Agian ere injüsto, gaixto, *ene nihauri eta bester ogen egile*, бүрүтү behar dügüniala lagüntü behar eta hartarik baztertzen bagütie. (ArmUs 1907, 111)

HU Zez

Jende xeheaz, populuaz baino are egiago da hau buruzagiez; herrietako auzapez, axuant, boz-biltzale, *beren buruei zu errailez* (HU Zez 194)

HU Gontzetarik

Gauza ebatsiak egundaino neheri ondorio on guti egin dio; ez ebasleari, ez eta *haren eskutik hartzaleari*. (HU Gontzetarik 36)

HU Kazeta

Zeri esker? Gure erlisioneak daukulakotz erakasten, izaite ahul inozent haren *gaizki erabiltzalea* mustro bat litakela. (HU Kazeta 214)

Kuraia handia dutela hor dabiltzanek, ba, mekanika hegaldun hoién asmatzaleak, egileak, gero-ta azkarrago, zaluago, eskukoago, *egunetik egunera ontzaleak*, hobetzaleak ez direla ttonttoak. (HU Kazeta 308)

Zozialistak direlakoén amets eroek eta *langileari ogi baino gasna gehiago hitzemailen* aho-berokeriek nahasten ez balituzte oro, eta batzu bertzen etsai bilakarazten, ederki loazke. (HU Kazeta 311)

Emazue bertzalde *haur hoién Parisetik hunat igortzalek*, zeren diren gobernamentu erlisionearen etsai hunen gizonak oro, ez dutela onesten hoientzat otoitzik, ez katiximarik, ez deus holakorik. (HU Kazeta 324)

Xatar usaina joan gabe, ja biziorik itsusienari ohartuak ere zonbeit, zer lanjerean ez dire holako batzu bi, hirunazka bardin tokia xuhur duten *etxe batzuetan hartzaleak*? (HU Kazeta 324)

Franximenteria leher eta zapart; eta oraino zer? Ez ateraldi pollit zerbeit; gure buruzagi, *frantsesez mintzatzaille* jaun bipilak jalitzen dituen egia bizardun hetarik, ez. (HU Kazeta 370)

Docker direlako langile (?) haro egile, soldadoen harrikatzale, *zaldien kanibet ukaldika kolpatzale batzuetarik* hamar-hogoi arte hori preso altxatu baitituzte eta kondenatu jujek, hamabortz, hogoi egun, hilabete bedera edo gehiago itzalean lo egitera, hetarik bati prokuradoreak, bi begietara so, galdatu dio, zenbat egun zituen sartuak urte huntan, unti husten arizana zelako lan dorpean. (HU Kazeta 467)

Bihotzminik saminenak ez dira beti *ontasun gehienik galtzalentzat*. (HU Kazeta 472)

Egun zortzi hemen berean gure jaun lagun *frantsesez mintzatzaille* batek aipatu du liburuxka bat, orai duela hurbil bortz urte guk argitarat berremana: hura da Laborantzako liburua, bertze orduz Duvoisin jakintsun handi, guarda kapitain ohi zenak egina. (HU Kazeta 593)

EskAlman

Laneko idipare bat: 60 libera; *karrosak trostan eremaile*, bi urtekoak, 160 libera. (EskAlman 1912, 61)

JE EuskG

Hobe segur! Agian *lumaz mintzatzalerik* ederrenari untz-urre bat emana izanen zako koblaririk xoragarrienari bezala, geroan ikusiko diren gudueta! (JE *EuskG* 18)

Beha nola doan jende xehia trumilka hirirat, teatre arrotzetarat; beha nola gure herrietan gaindi dabiltzan komediant, teatre, zinema, giñol, eta zonbat holako jostagailu, zorigaitzez ez batere guri eman direnak, zorigaitzez oro frantses edo españolezkoak, zorigaitzez oro *gure sosaren norapait eremaiak*. (JE *EuskG* 80)

Nausi malsoak, bainan bizkarkinak ezin gehiago, *hezurreraino xurgazale eta murtxazaleak*, beren so-egileak iduki zituzteno gure herrietan gaindi hiru ehun urte etsigarriz. (JE *EuskG* 144)

Bietarik ezin berezia bizkitartean Adema, eta bere lerroan *lumaren euskaraz erabiltzale hobereatarik*. (JE *EuskG* 231)

JE Med

Han hemenka, Frantzian, ikusi ditut bertze orduz ogi edo zur-zahiz eginikako koltxoin «cousins» ttipi batzu, arras guri eta alda-errexak hek ere, eta bardin *bustitik ohearen begirazale*. (JE *Med* 254)

JE KazetA

Oroitarazten ginituzten nolako hatsean, bazterrak oro xehatuz, jinak zitzauzkigun gainera, lehen lana aitzinetik elgarren artean zatiturik, industria handietan egiten ohi den bezala: batzu espiun, bertzeak multzoka gure aitzindarien tirokazale, andana bat armada bakotxean *gure herri gaixoer su emaile*, gibelegoak aldiz hatzeman guzien ebats eta erresuma barnerat erakarle. (JE *KazetA* 236)

Pariseko hiria baitzen egundainotik ordu artio modaren asmazale eta *emailea mundu guziari*, Pariseri aitzintzera lehiatzen zako Berline, dendarien eta tallurren lantegietarat zilatzen dute nolazpait alemanek; lantegi hetarik zombait erosten ere dituzte. (JE *KazetA* 240)

JE KazetB

Ondoan ditu, etxola luze batean, erreximenduko berrogoi musikariak; ondoan ere, bertze etxola on batean, erreximenduko mediku-nausia, bertze medikuen bezala, *musikarien ere manazale*, bere sekretario eta bizpahiru mutilekin. (JE *KazetB* 27)

Ziliporta gaixtoetarik begirazale hauta; bai ere baletarik, indar gabetuxak heldu zirenean. (JE *KazetB* 50)

GaztAlm

Basurdiaren ondetik, *errekolteri desmasia haundienegilia*: azkona. (GaztAlm 1934, 50)

Bianaie: bata *mezalat jouilia*, bestia ez? (GaztAlm 1934, 100)
«Bertzeren diruz *etxe egilea*, bere hobiaren harri bilzailea» zion gure aitaxok erakaspen gisa kondaira hau supazter xokoan erraiten. (GaztAlm 1934, 105)
Errekatzarreko nausia, langile gaitza bainan barne egosia, zor ukatzaile thematua, bertzerenetik ongosea, tratuan gezurtia, *zikiro gizena menditik merke eremailea*. (GaztAlm 1934, 105)

GAlm

Edo ditila izan emazte alla gizun, *kumentü hoitan bizizalek* badie mereximentü. (GAlm 1929, 34)
Khantin phorrü jaliak aldiz Mendibilen, / *Naboz asezaliak*, hurak Larrabilen. (GAlm 1948, 15)
Harpe zahar hoitan ibiltzalek, balin badakite ontsa so egiten, hautemaiten dituzte miresgarriko hatzak. (GAlm 1959, 42)
Hor ikusiko dituzu «muss»-lari handi eta famatuak, kaseta irakurtzaleak eta *telebisionari so egileak*. (GAlm 1960, 20)
Arthur eta Martin, biak *etxez-etxe saltzaleak*. (GAlm 1960, 44)
Egia da, *gaizki liseritzalek* maiz burua mintsu dutela. (GAlm 1962, 60)
Polliki emaillea bietan emaille. (GAlm 1962, 68)
Goiz jeikitzaletan izaiten ohi da fortuna. (GAlm 1963, 6)
Eskolarat laguntzaleak. [*irudi baten oina*] (GAlm 1968, 68)
Xuka mintzatzale Mugerreko. (GAlm 1969, 42)
Gaitz bera dü *orori emaiten zeliak* / Oro bardin beikira lürrera sortiak. [J.-B. Constantin-ek 60 urthetan egin koplak] (GAlm 1973, 64)
Abendoko preparatu dute ilargirat berriz itzuli baten egiteko Apollo-17 deitu tresna berria. Schmitt, Evans eta Gornan *hartan ibiltzaleak*. (GAlm 1973, 68)
Errabiatua izan balitz, edo zerbait holako? Bainan ez omen; samurgoa zuen bakarrik; herra *mutil gaizki erabiltzalearentzat*. (GAlm 1975, 65)
Ixidro ttipia *katiximan ibiltzalea* zen bainan guti ikasia. (GAlm 1977, 34)
Nere gustuko, zion neska batek, senar batek behar likek izan, ederra, mintzatzalea, ixtorio alegera kondatzalea eta *aratsetan etxen egoilea*. (GAlm 1977, 60)
Egypton, *herexa zaharretan miatzalek* aurkitu dituzte orroitzapen batzu, frogatzen baitute baliatzen zituztela argigailu batzu gure elektrikaren parekoak. (GAlm 1981, 23)
Badire bakar batzu oilo koloka bezein nahasiak. Ezta seurki piru hortakoa andere hau. Bakarrik dena ele-mele doi bat ahoberoa. *Ekai gutirekin saltsa muntatzalea*. (GAlm 1982, 62)
Ebanjelioa hitzez hitz hartzen badugu, igurika ditzazkegu bekatoros ohi parrasta bat: zazpi senar ukan zituen Sarraritarasa; —ema-galduak emazte ohatze egilearekin; —publikanoak eta bekatoreak Zakeorekin; —ohoinak lapur onarekin; —*elizan ez-ibiltzaleak* ehuntari erromanoarekin. (GAlm 1984, 41)
Oroit-arazten dut *elur-lekuetan ibiltzale bati* hotzak esku edo zango muturrak izozten, urdintzen, sorraiotzen diozkalarik, behar direla elurrez ahal bezain luzaz, arrapizt ditezen. (GAlm 1984, 51)

Soube *Petaïn*

Huna soldado gaztea gizon azkar egina, ditakeen azkarrenetarik: sorbaldak largo, urhatsa zalhu, zaldidun ona, bidekari hauta, tirari ezin hobea, *mendian ibiltzale zalua* eta ezin akitua. (Soube *Petaïn* 25)

Bere lagunen *bide makurretara biltzaleak* ezartzen dituzte preso, bakar batzu hiltzera kondatzen. (Soube *Petaïn* 52)

Soube *Fatima*

Haurreri agertu zelarik Valinoz tokian, Ama Birjinak erran zioten, arima zernahi badoazila ifernurat, ez delakotz nehor *beientzat sakrifizio egilerik*. (Soube *Fatima* 109)

Haurrak ikusi eta mintzatu dituztenek aithor dute denek, haur goxoak zirela, mintza erre-xak, *egiaren osoki erraileak*, hots! aingeruño batzu. (Soube *Fatima* 121)

Soube *Jesus*

Bertze baten *aintzin ibiltzailea* izanen da. (Soube *Jesus* 10)

Sortu berria den haurrak, apailatuko ditu Jainkoaren bidexkak, hura da izanen *Mesiasen aintzin ibiltzailea*. (Soube *Jesus* 12)

Haren aintzin ibiltzailea, Jondoni Joani. (Soube *Jesus* 13)

Errege handiek badituzte *bere aintzin ibiltzaileak*, Jesussek ere badu berea: Jondoni Joani Bartista. (Soube *Jesus* 21)

Hor zirezte lekuko zuek, nik erran dutala, ni ez naiz kristo, bainan *haren aintzin ibiltzailea*. (Soube *Jesus* 30)

Batistak *bere aintzin ibiltzaile* lana bururatua du. (Soube *Jesus* 33)

Joanik erran zion orduan: «Nagusia, norbeit ikusi dugu, zure izenean debru haizatzen ari, bainan ez beita *gurekin ibiltzailetarik*, debekatu diogu hola artzea». (Soube *Jesus* 95)

Leon *Alegia*

Ifernuan hiz, horditzale tetelea, / eta ni nuk hemen *jatera emailed!* / Santsinek orduan, ko-peta zimurrik: / Ez duguia *edatera emailerik?* (Leon *Alegia* 114)

Madeleine Jauregiberri

Izan zira zü lehenetarik *patarra gora abiazaletarik*, ene anai zenaren eta Lafitte apezaren on-dotik, zure arreba izan beita lehen arrapostüaren egilea lehen Begiraleen aitzindariaren deiari. (Madeleine Jauregiberri, 1957-01-20, in Davant *ZIZ* 121)

Lf *Eibera*

Beraz, behin gisa hortan jaundurik, gure Pinterok bozak aintzineko aste guzia ostatuetan iragan zuen, husten zuen baso arno baktotxean bere boza hitz eman ez *edaterat eskaintzaleari*. (Lf *Eibera* 96)

O ez zen malur handia jabearentzat! Aseguratu zuen, eta hautatu zuen konpainia azkarra zen eta *xuxen pagatzalearen* famakoa. (Lf *Eibera* 101)

Uste dut aurkitu dudala: errozu *gasna hortarik sobera jalea* mutu bilakatzen dela. (Lf *Eihera* 109)

Lf Hauta

Dakigunaz, ez dute gehienek ez-adituarenik egiten: beren herriaren alde izkiriartzen dute *beren burueri zu errailek*, ala mediku, lege-gizon, kazeta-egile, laborari handi, diru erabiltzale, ala aphezek, eta batasun hainitzek ere ba. (Lf *Hauta* 200)

Geroztik izan dira bai *Mgr Terrier-i erraileak ez zutela Herria-ren buruzagia arras beren gostukoa*. (Lf *Hauta* 409)

Holakoak deitzen ditugu *Eskualdungoari uko egileak*. (Lf *Hauta* 429)

Lf Idek

Horago erran dugun bezala, bere baitan bildurik dauzka *Kristori jarraikitzaile guziak*, haren obra lurraren gainean aintzina ereman, eta haren mezua hedatu nahi duten ber. (Lf *Idek* 65)

Lf Euskera

Axularren liburuaren ateratzeko *hiru baimena emailek* 1642-an izenpetu zuten nork bere ageria. (Lf *Euskera*, 1982, 291)

Lf Nafar

Ez zen, gero, Georges Lacombe, gogoeta axial, xila-errex, *deneri denen erraile betarik*. (Lf *Nafar* 110)

Hirueri osoki emana zen eta jarraikia, eta ez «*norat haize, harat aise*» *ibiltzale betarik*. (Lf *ELit* 271)

Elizan ibiltzalea zen horien guzien gatik. (Lf *Murtuts* 12)

Mde Artikuluak

Aldakuntza gaitza jasan zuen Elizaren eraberritze hori zela kausa, ez bakarrik Kornubitarren sinesmenak, baina bai haien hizkuntzak ere; alabaina inglesezkotik elizkizunak onartu behar zituzten nahi eta nahiez, eta garai hartako jendeak *elizara asko ibiltzale* ziren aldetik, ez zion gutti lagundu neurri horrek «erdera» zabaltzeari Kornubia guztian. (Mde *Artikuluak* 308)

Judu eskolatuetarik anitzek bazekiten guti edo asko hizkera hori; gainera, *Arabez mintzatzailleek* ikasi zuten, eta horiek ugari ziren Israelerat egoitera zetozenetan, lehen jileen uhinean ez bada ere, ondokoetan behintzat. (Mde *Artikuluak* 316)

Azkenean, *tzintzil ibiltzalea* zela eta, behatz muturren oharkabeko higikunek dutela ibilerazten erakutsi zuen Chevreur deitu batek; eta tzintzilaren erantzunak egoki zetozenean, bat zetozenean, radiestesilarien berjakintza-petikoan dagoeneko zeuden ezagutzak agerrerraztea baizik ez, zuen egiten. (Mde *Artikuluak* 348)

Ezen, bere mediumtasuna lanean den gehienetan, egoera berezi batean dugu medium delakoa, transa irasorria eta *lo-ibiltzalena* bezala: lotan mintzo eta ari da. (Mde *Artikuluak* 353)

Karrika

Mihi gaixto zenbaitek zioten arratsari buruz zaldi zaharra *zeiharka ibiltzaile* bilakatzen zitzaiola. (Karrika 23)

Horra Dalès orduko jaun errientak, geroxago aipatuko dutana, armendariztarrez egin liburuan eman dion luma ukaldia: «*zeiharka begiratzalea*, bainan zoin zirtolaria! Komisioen xuxen egilea, bainan zoin pagaraztailea!». (Karrika 24)

Eta gainerat ez ninduen *haren ipurtik ibiltzaile gisa* ezagutu, edo bestenez *ez ezagutuarena* egin zuen. (Karrika 130)

Gatxitegi Laborantza

Jakin behar eta hautatu, zoin ere baitira urtekal eta geihenik ekarleak, *gaitzeri eta guziz titadurari ihardokitzale*, eta, edo gostuaren edo kolorearen edo sasoinaren gatik, hobekienik saltzen direnak. (Gatxitegi *Laborantza* 117)

Panpilli

Agur eta ohore adixkide maiteak / Emak-hor *batasun hortan parte hartzaileak* / Mahin hundertara etorri gare dudarik gabe guziak / Ohoratu beharrez horren hiru hogoi urteak. (Panpilli 59)

Arrossagaray

Hori ere pertsulari ona zen, *biziki irri egin arazlea*. (Mayi Arrossagaray in Arrossagaray, 11)

Larz Idaz

Bainan uste duzuaia, eni ere plazer egin dautala, aipatu duelarik, *balerat joaileek*, hilak ez ditzutela ohoratzen. (Larz *Idaz* II 153)

Zorigaitzez, gerla muntatzaileak ez baitituk haatik *gerlaz pekatzaileak*! (Larz *Idaz* II, 310)

Zergatik presuna batek pagatu behar duen komunerat joaiteko! Xinan eta bertze asko erresumetan, *komunerat joailea* da ordaintzen, han uzten dituen aberastasunengatik. (Larz *Idaz* III 99)

Mutil ba, bainan ere *trafiku huntaz baliatzaile*. (Larz *Idaz* III 211)

Jendeaz baliatzale batzu! (Larz *Idaz* III 236)

Bizkitartean gizon ona da, euskalduna, *elizan ibiltzalea*. (Larz *Idaz* III 132)

Eta kontseilu beharretan omen da nolakoa aukera! Eta denek dakiten bezala, ni bainaiz *andreekin ibiltzailea*, eta heien ezagutzeko espezialista, horra zergatik dei egiten duen. (Larz *Idaz* IV 251)

Horra, president, biluzirik agerian ezarria Taulo jaunttoa: Errepublikaren etsaia, gure hiltzaile laguntzaile eta armatzalea, jende behartsuen bizkar aberastua, heien errekaratzailea, berak sortu *miseriaz baliatzailea*. (Larz *Idaz* IV 301)

Tobera musttrak muntatzen ziren *ezkontza gaizki erabiltzaleen* trufatzeko. (Larz *Idaz* VI 178)

Larz Mendi

Guti ziren *elizan ibiltzaleak*. (Larz Mendi 9)

Saindu izena ukailea baino hobe, ukan izena saildutea. (Larz Mendi 20)

Zer egin beraz eta nola joka *Iñaki hiltzaleen* gaztigatzeko? Horra galdera bat funtsezkoa, zorrotza eta, ber garaian, beldurgarria, erantzuna eman behar duenarentzat. (Larz Mendi 92)

Bihotzez errotik Euskaldun eta euskotarra. *Euskadiri bizi-emailea*... Ez bakarrik gorputzeko bizia ugari, bainan ere barruko euskal-gogo eta bihotza. (Larz Mendi 93)

Euskal ekonomi, politikazalek eta abar egin dezatela bertze hoinbertze beren lan-gaietan. *Armaz borrokatzaileek* berdin. Eta saila guzitako gudariek, ere. (Larz Mendi 101)

Beren sasi-gudian, norbeit ziren, *batzueri ikara emaile*, bertzez xalotuak. (Larz Mendi 115)

SoEg ESines

Han zen Mintegi arno saltzailea, *ni baino dorpeagoki ihardokitzaile gisa*, Alemaniako presondegia jasana. (SoEg ESines 61)

«Cognaco-résistant», *mama bixiari jazartzale*, tetelekeriaz nerasan bezala. (SoEg ESines 133)

Jaungoikoa gizonan, *gizonaren bibotz zolaraino sor-arazle*. (SoEg ESines 187)

Ikusten da leihorat itzultzen, *leihotik jauzi egilea*; zangoak gibelerat zaldiak eremaiten labrokan zaldizkoa; loreak agur bat eginik, bere hostoek gordetzen. (SoEg ESines 189)

SoEg Beñat

Eta guk ihardesten: «Potzo zakur tarroak, zer uste duzue zireztela Rusiako hartz eta Ameriketako arranoaren parrean? Ez bazinute ukan *Ruso hartzetik gerizatzale* Amerikano arranoa, aspaldi du, bai aspaldi, Ruso karroen ibaiak estaliko zituela, Rusiako airekoak behatzale, Alemania, Frantzia, Espainia, Italia, orobat Ingalaterra». (SoEg Beñat 32)

Frailek berak badie noiztenka *bide xuxenean ezartzale*, saindu baten beharra. (SoEg Beñat 112)

Larre

Geroztik urrundu zitazkion hegoaldeko argitaldariak, handik harat Baionako ospitalean izanen baitu, 23 urte luzez, bere ondar apaiz-lana, luzeena ere; *horgo eriei Eleizaren sokorri emaile*, menea izanen ditu, Baionan, irarkolak eta argitaldariak. (Larre Euskera, 1991, 483)

Hasperue pastoralzalea ere zela, *ikustera joaile jarraikia* erran-eta, hunelaxe segitzen du. (Larre Iker 21, 2008, 390)

Larre ArtzainE

Eta diru guziez goragokoa, hor du *Herria*-k bere taldea, beste talde guzien artean eta denekin eskuz esku doana gure mintzairaren eta *kultura orokorraren aintzina eta beti aintzina*go eremaile. (Larre ArtzainE 185)

HUrru Izar

Frantzian, Kontzilioaren kontrako horietan ezagutuena da Lefebvre Jaun apezpikua: haren inguruan edo *hari jarraikitzaile*, badira han-hemenka girixtino multxo batzu, elgarretaratzen direnak, beren arteko apez batzuekin, lehengo meza xaharra begiratzen dutela, Pio V-garrenaren meza. (HUrru *Izar* 65)

Eta jendeak zer lorietan kantatzen! Itzultzaile eta *bertsutan emailea*, Aita Xabier, bixtan dena. (HUrru *Izar* 355)

Davant Aberri

Erraz da zango gorri edo aztal gorri bezala bazterretik behari egoitea, gaizo Euskaldunen jorrratzaile, horien juje ta *horietaz baliatzaile*. (Davant *Aberri* 145)

Davant Abadia

Eüskaraz erakatea debetatzen dü legeak, / gaztigatürik dirate *eüskaraz arizaleak*. (Davant *Abadia* 80)

Davant Itsasoak

Orkatilla tiesoa ibiltzale denak / Gerria bezain mehe andere haundiak / Hein bat guria berriz emakume onak / Ibaiari emanik baita zurubia. (Davant *Itsasoak* 83)

Davant Aguirre

Eüskarraz ezarlea: Jon Mirande. (Davant *Aguirre* 73)

Euskaraz ützülezalea: Beñat Oyharçabal. (Davant *Aguirre* 107)

Züberotarrez ezarlea: J. L. Davant. (Davant *Aguirre* 107)

Davant Hauta

Ene ustez, kristau erlision badaude bi alderdi, teilatu batean bezala, bi eskualde, bi joera eta isuri: bata dinamikoa, ernea, *beti aitzina joailea*, konkistatzailea, hala nola Ameriken kolonizazioan ikusi dena, onerako eta txarrerako; bestea lasaia, baketsua, amultsua, burrunba, zalaparta, ttipikeria eta ontasunetatik askatua, hots budismoaren itxurakoa. (Davant *Hauta* 93)

Davant

Dena dela, hor dago bi hegalean elkarrenganako tirria, irrika, eta pentsu dut horren izenean hautatu ninduela Jose Luis Lizundia bizkaitar euskaltzain berriak, gaur *berari errefera emailtzat*, euskalgintzan aspaldiko lagunak izanez gainera. (Davant *Euskera*, 2004, 632)

Etxam Laminak

Hemen, galdegiten deat irakurlea, otoi orroit hadin hire otoitzetan Urtzalepo lagun onaz; hain zukan gizon zuzena, leiala eta fede haundikoa, *nor-nabiri zerbitxu egilea* bere dohaina ororendako balia-araziz, eta bereziki Libertatearen alde. (Etxam *Laminak* 99)

Etxam Urtzo

Oi lore haidur beldurgabea! *Neguari biak-hordago egilea!* Hi hiz eta gure biziaren miraila. (Etxam *Urtzo* 195)

Etxam Gilen

Hor noait ba uk *zakurrain giilian axikazale*. (Etxam *Gilen* 42)
Aizkolari eta mandozaineri jateko eremaile, abarrezko etxoletan eta ilarreez eginikako ohanztetan hazia Iratin, Otxagabiko bortu goretan. (Etxam *Gilen* 101)

Peillen Zub

Bidaide erran nahi da bidian kide, *elgarreki bidian joaile*. (Peillen *Zub* 50)

Peillen

mendea: asik, eta geroztik zerbaít jantzi kendurik: atorrasik, biirhasik (Lapurdin ere), bilhasik eta bitxiagoak saiasik (enborra agirian), galtzxi zolatasik (*galtzerdiekin ibiltzaileaz*). (Peillen *Iker* 7, 1992, 250)

Peillen Biziaeren

Erdi Arokoan, XIII. mendean Jerusalemgo Done Joanesen *Ordenari diru emaileetan* Orti Beia de Santo Pedro ba omen zen. (Peillen *Biziaeren* 17)

Erdi Aroan, arteko euskaraz XIII. mendean Jerusalemgo *Ordenari zerga emaileetan* Nafarroa Garaiko Olatzen, Sanso Erlea badago. (Peillen *Biziaeren* 18)

Martxuka jale: jale urria, *gutxi jalea*. (Peillen *Biziaeren* 42)

Tela hori da *zurrungan musika egilea* eta aho gingila ukitzean oka ematen diguna. (Peillen *Biziaeren* 87)

Eskukatzen da eskuztatzen da gauza bat ezagutzeko edo hezteko, ezen katu edo zakur eskukatua hobeki hezten da, baina eskukatzearen laztana ikusleagandik edo *gogoz kontra hartzailearengandik* gaizki ikusia liteke. (Peillen *Biziaeren* 145)

Beti gose denaz bada hitz ugari: aseezin, ezinase, irensle, janzulo, herxelüze, gosebera (gosezto) *Gehiegi jalea*: jatun. (Peillen *Biziaeren* 160)

Bigarren sail batean, ospakizunen gatik: hil abesti, hil agiri, hil andak (hilaren eroateko), hilarri, hilarrieta (nekropolis), hilartitz (epitafio) hilatorra (hil izara), hil beila (gaubeila/hilbeila), hilburuko (ordeinu), hildei, hil eresi, hilerri, hileta (ehorzketa), hiletari/hiltiar (hiletan ibilia), hiliki, (berhilki) hil jantzi (hil oihal), hilketari (*hilohean sartzaile*), hilku-txa (hilohe), hilobi (hil zilo), hilondo, hilondu (enbalsamatu), hil ots (hil zeinu, hil ez-kila, hil kanpai), hil txartel (hil iragarki). (Peillen *Biziaeren* 170)

Jangose, jatun (*asko jalea*). (Peillen *Biziaren* 184)
 Gauaz lotan jaikitzen dena, *lo ibiltzaile* da. (Peillen *Biziaren* 194)

Xanpun

Nere nagusia dut hola ta / *egi onak erraileak*, / eta atzetik ostiko eman; / hoik dira Jainko-jaleak. (Xanpun 165)

Aguerga

Nun da jüstizia mündian? / Nun ez khausi ixterbegik? / Nuiz üskal bihotz zabalak, / *Dener batzarri egilik?* (Aguerga 23)

Dupac *Añarrosa*

Frantses armadatik ibes joaile horrek bere kapitain-jauntzia irabazia ala ebatsia ote izan zuen, Jainkoak daki! (Dupac *Añarrosa* 25)

JPMendiburu

Gogo bihotzen pausatzailea, akiduren eztitzaile, / lan artetako lasaigarria, buruminen goxatzaile, / irri luzeen asmatzailea, *bozkarioa emaile*, / gure eskualdun nortasunaren laguntza ta hedatzaile, / *hasarrearen aztaparretik gizonaren libratzaile*. (JPMendiburu 67)

Casve *Eliza*

Erien üntatze saintüaz eta apezen otoiitzeaz, Eliza osoak eriak *Jauna igurzalearen* eta ospatüaren esküetan ezarten dütü, eztit ditzan eta salba. (Casve *Eliza* I 10)

Kristori jarraikizaleak, Jinkoak, ez beren laneginen gatik, bena Haren eginahiaren eta grazia-
 ren gatik deitürik, eta, Jesús Jaunean garbitürik, sinestüaren bateüan egiazki Jinkoaren haur eta Jinko izatearen parteliant, eta arren egiazki saintü, eginik dira. (Casve *Eliza* I 38)

Arren ezinago egoki da Jesús Kristoren adixkide eta ondorekide hoik, gure aurride eta *guri honkigile* ohargarri ere, maita ditzagün, hoientako Jinkoari zor zaitzon eskerrak eman ditzaogün, «apalik deiegin dizaegün, eta honkien ardiesteko Jinkoa ganik, Jesús Kristo, gure Jauna, haren Semearen arartez, gure Askazale eta Salbazale beit da, galtegin ditzagün otoiitzeak, lagüngo eta heltüra». (Casve *Eliza* I 50)

Prefosta Apostolüek, Jaunaren iganküntetik landa, berak erran eta egin zütüanak, berek, Kristoren gertakari ospetsüek ikasirik eta egiaren Ezpiritüaren argiak jakintsütürik, gozaten zütüen *ülerpen barnagoareki behazaleer* igaranarazi zütüen. (Casve *Eliza* II 9)

Moldakuntza elizkizünekoaren eta *erkidegoa arizalearen* jarraikitzeaz. (Casve *Eliza* III 6)

Moldakuntza elizkizünekoa bai eta sinesdünen *erkidegoa arizalea*, barnekoa eta kanpokoa, haien adinaren, күntearen, bizimoldearen eta errelijionezko күltüra heinaren arabera, arimen artzainek arraheinki eta batikorki jarraik bitzae, Jinkoaren mixterioen emaile leialaren lanbide lehenetarik bat betatzen düelarik; eta beren artaldea gaüza hortan ez elez baizik, bena ere erakusbidez bida bizae. (Casve *Eliza* III 7)

Elizerrituek, bakoitxaren bere izatearen arabera, algarrekiko ospakizün bat düelarik sinesdünen jarraikitza eta *partelingoa arizaleareki*, sarrerazi behar da, ahal bezain bat, hori hobe dela haien ospakizün bakoitxarena eta norberarena bezalakoa beno. (Casve *Eliza* III 9)

Erkidegoa arizalearen aitzinarazteko, herriaren goraiapatzeak, ihardespentak, salmo emaitreak, leloak, kantoreak, bai eta egitateak edo keinüak eta korpitz plantak lagüntürük izan bite. (Casve *Eliza* III 10)

Hortakoz, bakoitxaren, bai nausien, bai lanemaileen, bai lanbürüen, bai langileen eginbideak ikusiz, eta lanzüendarigoaren batarzün beharrezkoa begiratüz, abiadüren zaingoan oroen *partelingoa arizalea* aitzinaraz bedi, adereak behar bezala argitü eta. (Casve *Eliza* IV 64)

Casve SGrazi

Hebentxitorik lohardi herria egoiteko orde, / *Guri gaixkiegiliak* orai arren ditzagün hez. (Casve *SGrazi* 134)

Casve Pette

Nuiz nahi hitara jauzten / gaiaz, egünaz, Uhuiñak; / Thai gabe ere *orotan / guaitan gaixkiegiliak*. (Casve *Pette* 103)

Casve Aroa

Nola aiza litiroke? Hain xüxen laratza da, etxen barnen, *zelüko sü gaixtotik begirazalea*. (Casve *Aroa* 15)

Iratz Afrika

Misiolariak etorriz geroztik, hiru errege izan dituzte Abome-n Dahometarrek buru; gizonodol ixurtzaileak eta *dirugosez esklabo saltzaileak*. (Iratz *Afrika* 11)

BARNEKO HAIZEA: *ongirat ala gaizkirat sustatzaile*. (Iratz *Iker* 6, 1992, 208)

Luku Iban

Komersant, hiri agintari eta *papurrak biltzaileak*: irrati lokalak. (Luku *Iban* 79)

XIr Amazon

Ez dea hala, Kekanako abadeak erranik, bekatuak barkatzen direla *hango bazterren garbitzera joaileri?* Badikeie hire beharra, erran zuen Llamosori buruz itzuliz. (XIr *Amazon* 30)

Orok ere, Llamosok norek nahi bezain ongi, bazakiten *ixilka joaile asko* bazela, lehenbizian gordetzeko laguntza ukanez gero. (XIr *Amazon* 31)

Egun batez, Magdalenaren sahetseko erreka bati jarraikitzea gatik, abiatu ziren oihan xut bati gora, Insar kapitaina *aihozlariekin bide egile*. (XIr *Amazon* 45)

Eni erraileak eskarniatzen zuen epaile dohakabea, nolaz-eta uste zukeen badirela «hiltze maitagariago batzu». (XIr *Amazon* 115)

Jadanik entzunak ginen, Quiton berean lehenik eta gero ibai-buruan, Orellanak Aparia jauna mintzatu zuelarik: aberatsak zirela eta *biziki lotzaileak*, mirotzak baino areago eta, agertzen baginen, hiltzeaz bertzerik ez ginuela iguriki behar. (XIr *Amazon* 138)

Hitzak iragan eta lekukoak deiturik, eguerditan biek izenpetu zituzten egitekoak: Urzuak, apezpiku eginen zuela, eta *irabazietan hartzaile*. (XIr *Amazon* 163)

Zeren lanari lotzeko lagunak bazituen, zimarroi-ihizin ibili zirenetarik; ez ainitz bainan itzal oneko, jeinutsu eta zintzo: Garzia Arze, Baztandar adixkide mina; Diaz de Arles, ahaide hurbila; Lorenzo Zaldueño eta oraino bizpahiru, *hitzez eta aholkuz sustazaleak* ez konda. (XIr *Amazon* 165)

Eta handik *aztal-bihira joaile* baita kilika, aitortu zakon oinetarik lotzeko tirria, erhi xehetik beratzeraino kantatuz. (XIr *Amazon* 169)

Hala nola bi zakur mota baitire, batzu ihiziaren ondotik lauhazka, bere bihotza errautsirik ere egin ahala urrun doatzinak, aldiz bertzeak *etxondoetan musurka egoile*. (XIr *Amazon* 203)

XIr Itzala

Orduan itzultzaite *suari su emaile* denari buruz. (XIr *Itzala* 16)

Dio lehenik, ez duela insumitzera nehor ere deitzen, ez dakielakotz nola laguntza litzazken *deiarri jarraikitzaileak*. (XIr *Itzala* 28)

Funtsezko auzia heldu da *gehiengoa bozkatu gabe* egon zenetik: 54,5 inskriptuen gainean. *Etxen egoileak* honenbertze izanki, jakin behar da zertako. (XIr *Itzala* 41)

Santa Kruzpastoralaren ikustera *Santa Grazira joailek*, atzo entzun dute Junes Casenaven «kanta foruak». (XIr *Itzala* 60)

GilBera Montai I

Apezpiku batek idatzirik utzi du munduko beste muturrean, badela irla bat aitzinekoek Dioskoride zeritzotena, aire osagarrizkoa, zuhaitz eta fruitu-mota guztietan emankorra eta nasaia; hango jendea kristaua izanik, gurutzez baizik apainduak ez diren elizak eta aldaerak dauzkalarik, beste iduririk gabeak; barauraldi eta besten begirale handia, *apezei hamarren-pagatzaille zuzena*, eta hain garbia, ezen haietarik inork ez baitu emakume batez baizik ezagutzen ahal bizi osoan; bestela, bere zoriarekin hain kontent non, itsas erdian, ez baitaki ontzien berri, eta hain simple ezen, hain artoski begiratzen duen erlijioaz, hitzik ere ez baitu aditzen; ezin sinetsizko gauza ez dakienarentzat jentilek, idolatra sutsuek, ez zituztela beren jainkoen izenik eta estatuarik besterik ezagutzen. (GilBera *Montai* I 277)

Davant ZubLit

Gorri, xuri (e)ta berde ikhurriña ejerra, / *Güzier mezüzale* gaintetik behera, / Etxek Eüskal Herria bakian (e)ta gora. (Allande Bordaxar, 1996, in *Davant ZubLit* 156)

Diras *Mina*

Ene herrian izan zara? Harritu zara nik uste ohartzearekin ez nuela zazpiak eta hamarretako treina hartzen zurekin sartzeko? Badakizu zer gertatu den? *Autoan segitzaileak* banituen Parisera. (Diras *Mina* 120)

Itzaina *Labe*

Bizkitartean, Eskualerriak eremu ttipia duelakotz eta etxaldeak ahal bezain oso eduki nahi ginituzkelakotz, *herritik joaileak* bethi izanen dira. (*Eskualerrizaleen xedeak in Itzaina Labe* 18)

Orpus

Ezta biziaren ikastetik nehor gelditzen: Piarres ere ez, *trufan ihardokitzaileak* aurkitzen ditu. (Orpus *Euskera*, 1992, 141)

Orpus *Flaub*

Uste zuen emazte arinak *embaxadorer aholku emaile zirela*, ezkontza aberatsak jukutrien bidez ukaiten, galerianoek jeinua bazutela, indardunen eskupean halabeharra hezten zela. (Orpus *Flaub* 76)

Zango sagarretarano jausten zizakon iletzearen hobeki ager-arazteko, neska ile hori handi bat, *Operan urrats egilea*, basandere moldean emana zen. (Orpus *Flaub* 110)

Dagorret

Alta, autozain hura, *urrun ibiltzaile haren gisa*, bortxatua zen arriskuak hartzera bere lanean, jakina gatik tresna ez zuela fidagarria. (Dagorret 58)

Erdi-berezi bizi nahiak eta basa-sinestedunak dira mintzo betroinez, *herritik joaileak* eta herriadunak alemanez, Jazarkundearen kontrakook italiano, eta buru beroak euskaraz! (Dagorret 71)

Jean Bordaxar

Hortan ützen zütüegü / *guri soegile güziak* / Parka gure hüts txipiak / berriz ere goraintziak. (Jean Bordaxar, 2002, in *Davant ZubLit* 175)

Herria

Ene ustez, kristau erlisoan badaude bi alderdi, teilatu batean bezala, bi eskualde, bi joera eta isuri: bata dinamikoa, ernea, *beti aitzina joailea*, konkistatzailea, hala nola Amerikaren kolonizazioan ikusi dena, onerako eta txarrerako; bestea lasaia, baketxua, amultxua, burrunba, zalaparta, ttipikeria eta ontasunetatik askatua, hots budismoaren itxurakoa. (Herr 2001-02-22, 6)

- Eta goresmenak armendariztarrereri eta *beien diruz laguntzaileeri*. (Herr 2001-07-05, 7)
- Hau erakaslea zen eta apezka; ez batere *nehortaz baliatzale* baina aitzitik *besteeri beretik emaile*. (Herr 2001-10-18, 8)
- Bagira zenbait beilari, behin 20 bat izan gira, aurten 9, *mendiz joaileak Bankako Osnaisto gunetik*, Peio Curutcharry buru. (Herr 2002-09-12, 5)
- Beste alde batetarik haatik bazuten muga bat, doi doia pasatu dutena: behar ziren *bozkatzera joaile* % 50ko mailean bederen. (Herr 2003-05-22, 2)
- Ez direa alabaina, diotenaz segurik, Argentinako militar ainitz *azkarki pertsegitzaille* izanak diktadura hartan! Hala-nola hain aipatuak izan ziren «airez hil» heietan: airekoetarik itsasorat botatzen baitzituzten bizirik. (Herr 2003-07-03, 2)
- Bazkari eta aperitifa denboran, herriko gazteak, *haur kantu xapelketan parte hartzaile* eta beste, agertuko dira taulen gainera, musika zati eta kantu batzuen emaiteko. (Herr 2003-09-04, 5)
- Horra nun dauden lorios xingar azpi eta botoilak eskuetan, *xutik ezartzalen* sahetsean. (Herr 2004-01-01, 5)
- Aurtengo berezitasuna: hegoaldeetik jinik, *dailuz edo segaz belar mozleak* ikusiko direla. (Herr 2004-07-05, 5)
- Alderdi hortako artzainak alabainan arras kontent dira lan hortaz ta nahi luzkete eskertu hautetsi, ofiziale eta *lanean parte hartzaile guziak*. (Herr 2004-09-16, 3)
- Zauriaren gainean piko, jada 1800 dolar emanak ziozkan koiote bati, *mugan igan-arazle baliatzale* bati. (Herr 2004-11-25, 6)
- Züberoako lehena datekan 146. kilometra horren egitera deitzen dütügü, prefosta, ahala eta nahia dükeen güziak, *Bortukarietan ebilzale* izanik ala ez. (Herr 2005-03-10, 5)
- Goizetik arats, eta aratsetan ere oraino, zernahi lasterkari, jende frango bestalde *bazterretik sustatzaile!* (Herr 2005-03-17, 3)
- Edu Zelaietak 32 urte ditu, Euskal Filologoa, Udako Euskal Unibersitatean, literaturaz arduraduna, Baztan-Malerrekako euskalkien ikertzale amorratua, bai eta ere idazle eta olerkaria: «Hatsaren Poesia» Olerki bilduman *hastapenetik parte hartzalea*, «Mugaldekoak» deitu poema liburu baten idazlea. (Herr 2005-08-11, 3)
- Unibertsitateko erakasle, kontsultatzale dira kurtso emaileak eta *banakako ikasle segitzan arduratzaileak*. (Herr 2005-09-15, 3)
- Maite Goyhenetche ezterenzubierra, 30 urte, *laborantxa alorrean animatzailea* eta Lurra elkartearen kidea. (Herr 2006-03-16, 8)
- Beheraxago emaiten duzu ezikasi batzu eta makila bi burutarik atxikitzen dutenak gehienik direla mintzo; ni ez naiz *makila bi burutarik atxikitzaile* horietarik, bainan ttipiak ere badu bere libertatea, bere ikus moldearen emaiteko; emaiten ere duzu ixilik lanean ari direnak direla gutienik aipatuak. (Herr 2006-04-20, 6)
- Gerla denboran, *Alemaneri ihardokitzaile* bezala arrastatua izana zen eta Auschwitz-eko herio-kanpo deitoragarri hartarat eremana. (Herr 2006-05-11, 3)
- Elkar etxearen izenean, Peio Etcheverry-Aintchart jauzi batez izan da Donibane Lohizunen, hogoi urte huntan hor plantatua den Vincent Lafon adixkideak atxikitzen duen liburutegian, aurkezpena egitea gatik, bere aldean zituela Marie-Claire Elissalt, liburuaren idazlea, Iñaki Pikabea, *euskararat itzultzailea*, Juantxo Egaña argazkilaria, bai eta Dominiqne Errecart, Donibaneko erretora. (Herr 2006-06-22, 8)
- Aurka aldiz Pabetik botere zerbait ardietsia duten kargudunak eta *haier jarraitzaileak*, den guttieneko kanbiamenduren beldurrez daudenak. (Herr 2006-08-31, 6)

- Hauxe errepikatzen zuen ardura Kofi Annan-ek, berak ere gazte zelarik entzuna omen, munduko estatu puxantenak ahulago direnen laguntzaile behar direla eta ez heien menperatzale edo *heietaz baliatzale*. (Herr 2007-01-18, 8)
- Euskarara itzultzailea*: Graxi Solorzano. (Herr 2007-02-01, 6)
- Madrileko trein bideetan martxoan egin zen atentadu hartaz, 191 hil izan baitziren eta 1824 kolpatu, auzia aitzina doa hobendunen aurkitzeko, *hamar bomba lau treinetan ezartzaileez* eta izigarrikeria haien supiztaileez. (Herr 2007-02-22, 2)
- Aitzinean Agirre hobetzen ari Ezcurraren kontseilu onekin eta bi gibelegoak *jo ederrean ploatzaile segurrak*, Ximunen besoa eta jeinua arras gustatu zaizkigularik lehen ginazkieken gainerat. (Herr 2007-06-21, 7)
- Badira oraidanik oroituak, eta ez guti oroituak, 2012-ko president-bozetaz! Ikertzaile batzu *bazterretik sustatzaile!* (Herr 2007-11-18, 2)
- Autonomia Eraikiren izenean, beste lagün zonbaitekilan batean, *New Yorkera joailetan* den Audrey HOC Maulera jinen da gertakizün horrez egin düan hoge bat minütako bideo baten erakustera eta izanen diren galtoer arropostü emaitera. (Herr 2008-03-13, 5)
- Azkenik 8 axuant horien zerrenda agertua izan da nor ziren eta zer kargutan: Isabelle Pargade kirol eta agusa orduentzat, Pierre Fieschi diruzain postuan, Maguy Bassagaisteguy ikaskuntza eta gazteria sailarentzat, Patxi Arotçarena kultura eta animazio mailarentzat, Danielle Maury *sozial sailaz arduratzaile*, Jakes Arguindeguy inguramena eta garapen iraunkorarentzat, Louise Darguy komertsio, saltegi eta etxegintzako ofizialentzat eta Guittu Askarat bide eta azpiegiturak eta ere ur eta hauen artatzeaz arduratuko dena. (Herr 2008-03-20, 4)
- Boloniako auzapeza da, han berean bizi, girstino, *elizan ibiltzale jarraikia*, politikan ezker erditsukoa, profesorea deitzen dute, partidu demokrataren sortzaile izan zen eta bere nortasunaren zaintzale, ahalaz nehoren meneko jarri gabe. (Herr 2008-05-22, 2)
- Ekitaldi horren gozama-gozaitak, Eztitxu Vivanco kirolaria (*Pekingo olimpi-jokoetan parte hartzailea*) eta Manu Merin Avironeko zangobaloiko presidentia hor izanen dira. (Herr 2009-02-26, 7)
- Sindikatu deitzaleek saminki salatu dute jaurlaritzaren aldetik bost ahalak eginak izan direla, *greban parte hartzaileak* lotsatzeko. (Herr 2009-05-28, 2)
- Irabazleeri xapelaren emaila*: Mixel Xalbador. (Herr 2009-06-04, 3)
- Horien guzien kudeatzaile denbora luze hortan eta ere *gure parropiako gora behera guzieren kasu emaila* Michele andere serora eta Marie Helen Duhauren inguruan izan da presuna multxo bat zinez izaite zail hortaz arduratu direnak. (Herr 2009-10-15, 4)
- Eki-indar fotovoltaikoa: egitekoak, *hortan arizaleak*, merkatüaren gorabeherak, agerian baratzen dena. (Herr 2009-11-05, 2)

Etxehandi

- Akab: Omriren semea, *herria idolatriarat eremaile ezaguna*. (Etxehandi Mich 6, 16 oharra)
- Maileguz hartzaileak* itzultzekoa ukanik ere, jabeak nekez eskuratuko du erdia eta horrekin pozik izanen da (Etxehandi Eccli 29, 6)
- Eta zu, haurtxoa, Goi-goikoaren profeta deituko zaituzte, Jaunaren aitzinean joanen baitzira, *hari bidearen prestatzaile*. (Etxehandi Lc 1, 76)

Neri, *haren kontra gaizki-erraille*, pertsegiztaile eta laidostatzaile izan nintzenari; bainan, nitzaz urrikaldu da Jainkoa, neure fedegabea ez bainakien zer ari nintzen. (Etxehandi 1 Tim 1,13)

bekadari handitzat hartzen baitzituen judu-tradizioak, edo aingeru eroriak, *jendeen bekaturat eremaileak* omen zirenak, edo hilak oro har. (Etxehandi 1 Petr 3, 19 oharra)

Trounday *Balitzane*

Ni, *Peio zaurituaren artetxera eremailea* naiz, *zuri sekretuzko mezu horren ekarlea*. (Trounday *Balitzane* 84)